

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XIX. edizioa

2 0 0 7

*Mig
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

BASTER, S.L.L.

ISBN: 978-84-88714-43-2

Lege Gordailua: BI-1277-08

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Honako hau duzu, irakurlea, Bilboko Udalak antolatzen duen Mikoleta Ipuin Lehiaketari dagokion argitalpena, hemeretzigarrena dagoeneko.

Berton epaimahaiak saritutako 12 ipuinez gain, aipamena jaso duten beste 13 ipuin ere badituzu.

Idazle gazte hauek fantasia eta errealitatea islatzen duten ipuinak sortu dituzte baina, beti ere, gaur eguneko aroan murgilduta. Neskato-mutiko gazteenak mundu magiko eta liluragarrietan murgiltzen dira gnomo, sorgin eta abarren konpainian; nagusienak, aldiz, gure gizarte modernoan gehien entzuten diren gaietara salto egiten dute: anorexia, homosexualitatea, tratu txarrak, kultur eta errealitate aniztasuna, HIESa, nahi gabeko haurdunaldiak...

Ziur nago guzti-guztiak edozein adinetako irakurlearentzat atsegingarri izango direla eta, horregatik, guztion esku jarri dugu argitalpen hau internet bidez gure Udaleko web gunean (www.bilbao.net).

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiet Mikoleta ipuin Lehiaketan parte hartu duten guzti-guztiei nork bere munduaren berri emanaz aberastu gaituelako, bai eta irakasleei eta gurasoei ere euren lana funtsezkoa delako.

Iñaki Azkuna
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta zazpiko maiatzaren hiruan arratsaldeko bostetan batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XIX. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 753 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. LAGUN BERRIAK,
Lore Guillen Bilbao,
Felix Serrano LHI, LH 4. maila.
2. PUPPIREN ABENTURA,
Beatriz Lekue Bañuelos,
La Salle Bilbao HLBHIP, LH 3. maila.
3. TELEFONO MUGIKORRA ETA IKER,
Lara González,
La Salle Bilbao HLBHIP, LH 4. maila.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. NIRE BIZITZA,
Unai López Uribelarrea,
Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 5. maila.
2. Aaaah!!! LABEZOMORRO BAT!!!,
Janire Muñoz,
Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 6. maila
3. KOLON ORAINDIK BIZI DA!,
Guillermo Manzanares Dominguez,
La Salle Bilbao HLBHIP, LH 5. maila.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. NIRE LAGUN MAITEA,
Goizeder García Almaraz,
Ignacio Ellacuria BHI, DBH 2. maila.
2. IDAZTEAREN LOTSA,
Unai Guillen Bilbao,
Miguel de Unamuno BHI, DBH 2. maila.
3. BENETAKO LAGUNA,
Leire Fdez. Ruiz,
Gabriel Aresti BHI, DBH 2. maila.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. TABERNA BAT HAINBAT BIZITZA,
Iñaki Etxarri Ocio,
Solokoetxe BHI, DBH 4. maila.
2. BIHOTZA ESKUAN DAUKADALARIK,
Carlota Ruiz Sáenz,
Solokoetxe BHI, DBH 3. maila.
3. EGIAREN AURREAN,
Patricia García Sesma,
Ignacio Ellacuria BHI, DBH 4. maila.

ARGITARAGARRIAK:

A KATEGORIA:

- KAMAL BILBON, Maitane Boillos Pereira, Luis Briñas-Santutxu LHI, LH 4. maila.
- KROLY, Olaia Alberdi Sololuze, Txurdinaga LHI, LH 3. maila.
- ELENEREN JOSTAILUAK, Maria Estebanez Santoz, Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 3. maila.

B KATEGORIA:

- ASTO BATEN BIDAIA, Bruno Barquilla Marin, Maestro Garcia Rivero LHI, LH 6. maila.
- GNOMO BAT GUDAN, Julen Gago Bajo, Abusu Ikastola HLBHIP, LH 5. maila.
- ARGEN ETA TINA, Unai Madariaga Zabala, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- SORGIN MALTZURRA, Ane Sánchez Ruiz, La Salle Bilbao HLBHIP, LH 5. maila.
- AITONAREN ISTORIOAK, Garazi Santamaria Sanchez, Karmelo Ikastola LHI, LH 5. maila.
- PERGAMINOA, Izarne Alday Munilla, Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 5. maila.

C KATEGORIA:

- EGUNEROKO MAGIKOA, Alazne Cuerva López, Ignacio Ellacuria BHI, DBH 2. maila.

D KATEGORIA:

- UME ETA SOLDADU, Israel González Alonso, Ignacio Ellacuria BHI, DBH 3. maila.
- ADOLESZENTZIA GALDUA, Jenifer Martin Alcorta, Ignacio Ellacuria BHI, DBH 3. maila.
- HERRIKO KONDAIRA BAT, Andrea Atutxa Araujo, Ignacio Ellacuria BHI, DBH 3. maila.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon bi mila eta zazpiko maiatzaren hiruko arratsaldeko seietan.

Ana de Castro Rubalkaba, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Xabier Gereño, epaimahaikidea

Jose Maria Larrea, epaimahaikidea

Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea

Luis Gutierrez, epaimahaikidea

Pedro Alberdi, epaimahaikidea

Juan Ramon Madariaga, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3.eta 4. maila)



Lagun berriak

Lore Guillen Bilbao
Felix Serrano LHI, LH 4. maila

Bazen behin Euskal Herriko herri txiki batean eskola bat. Eskola hori ez zen normala ume guztiak Euskal Herrikoak zirelako eta garai horretan eskoletan leku ezberdin askotako umeak egoten zirelako. Herri horretan ez zegoen atzerritarrik eta horregatik izango zen. Hori uste dut nik!

Eskolako patioa zabala da, lauki formarekin. Bertan zabuak, iturri bat, saskibaloian jokatzeko saskiak, futbolerako zelaia eta ateak daude. Atsedendietan umeek gauza desberdinak egiten dituzte. Batzuek soka-saltoan jolasten dute, beste batzuek futbolearen edo saskibaloian eta besteek zabuetan...

Aurten ere, beti bezala, umeak uda eta gero klasera joan dira. 4. mailako klase batera beltzaran bat joan da. Eskola guztian ez dago atzerritarrik. Bakarra da. Bere izena Bufo da. Jolastorduan Bufo jo egin dute, burla egin diote eta gauza gehiago. Hurrengo egunean, berdin eta hurrengoan ere bai. Azkenean utzi zioten jotzeari. Bufo izkina batean egoten zen baina egun batean beste ume berri bat etorri zen bere klasera. Txinatarra zen eta Tuko zuen izena. Jolastorduan bera ere jo egiten zuten. Azkenean utzi zioten jotzeari.

Bufok eta Tukok elkarrekin jolasten zuten. Bufok Tukori erakusten zizkion bere herri edo hiriko jolasak eta Tukok Bufori.

Bufo beltzarana da eta oso urrunetik etorri da Euskal Herrira ez daukalako dirurik bizitzeko. Bufo pertsona ona, ikasle ona eta batez ere bihotz onekoa da.

Arropa zaharrak daramatza. Zapatak ez dira oso onak eta gainera apurtuta daude baina berari ez zaio inporta. Gutxienez badauzka.

Tuko txinatarra da. Aurten etorri da Euskal Herrira bere gurasoek ezin baitute gehiago zaindu. Ez pentsa ez dutela maite; izan ere, hauek ere ez dute dirurik zaintzeko ezta bizitzeko ere. Horregatik utzi behar izan zuten umeak zaintzen dituzten leku batean. Tuko adoptatua da. Euskal Herriko guraso batzuek adoptatu zuten eta hemen bizi da orain.



Behin, klaseko batek Bufo eta Tuko ikusi zituen jolasten eta, dibertigarria iruditu zitzaionez, begira geratu zen. Bere gelakoak haserretu egin ziren baina jolasten jarraitu zuten. Neska horri ez zitzaion inporta eta lagunei esan zien ikusteko baina bere gelakoek ezetz esan zioten. Apurka-apurka gero eta ume gehiago zeuden ikusten eta guztiek jolastu nahi zuten beraiekin, oso dibertigarria iruditzen zitzaielako.

Neskaren lagunak ere bazeuden. Eta batek esan zuen:

—Guk ere jolastu al dugu zuekin?


Bufok eta Tukok baietz esan zuten buruarekin. Jolasten hasi ziren eta oso ondo pasatu zuten. Hurrengo egunean, joko berriak egin zituzten eta ume euskaldunek beraien jolasak erakutsi zizkieten. Oso ondo ibili ziren guztiak.

Agian, etorkizunean, Bufok eta Tukok beren herrira joateko aukera izango dute, baina nik uste dut ez dutela nahiko. Zuk zer uste duzu?

PUPPIren ABENTURA

*Beatriz Lekue Bañuelos
La Salle Bilbao HLBHIP, LH 3. maila*


Puppi Guggenheim museoaren aurrean lorez beterik dagoen txakur handia da. Puppik pertsona asko ikusten zituen egunero bere aurretik pasatzen. Puppik hori ikusten zuenez, pentsatu zuen Bilbo oso polita izan behar zela. Bera ezin zen mugitu eta erabaki zuen Bilbotik paseo bat ematea.



Martxoaren 3ko gauean ilargi eklipse bat egongo zen eta horrelako gauak magikoak dira.

Puppi lokarturik zegoen eta begi bat irekitzean ilargi tximista bat bera jotzen ari zela ikusi zuen. Bat-batean, tximistak txakur txiki batean bihurtu zuen. Orduan, Bilbotik paseo bat ematea pentsatu zuen Puppik.

Berandu zenez, Puppi alde horretatik inor ez zegoela ziurtatu zen eta eskailerak jaitsi zituen. Bilboko ibaia ikustera joan zen. Ibaitek pasatzeko zubi asko ikusi zituen: Deustuko zubia, Euskalduna zubia eta La Salve zubia... Eta beste aldean, Zubi Zuri zubia.




Udaletxera heldu zen eta oso eraikin polita zela iruditu zitzaion. Erloju handi bat zeukan. Korrika jarraitu zuen eta antzoki zoragarri bat ikusi zuen: Arriaga antzokia zen. Gero, kale luze batera joan zen eta estatua altu batera iritsi zen. Leku hori Bihotz-Sakratuaren enparantza zen. Handik Euskalduna Jauregia ikusten zen. Errepidea zeharkatu zuen eta parkera heldu zen. Han zuhaitz asko eta urmahel bat zegoen, baina... ez zeuden ahateak!!! —Non egongo ote dira? —galdetu zion bere buruari Puppik.

Aurrera jarraitu zuen eta Begoñara iritsi zen "amatxu" ikustera. Handik Bilbo osoa argituta ikusi zuen.

Egunguentia heldu zen eta Puppi bere lekura itzuli zen inork ez ikusteko baina bidean tranbia bat ikusi zuen eta gustatu zitzaion. Salto bat eman zuen eta tranbiara igo zen Guggenheim museoraino. Eraikinaren aurrean egotean oso distiratsua eta polita zela pentsatu zuen.

Bat-bateko eguzki izpi batek Puppi ukitu zuen. Txakur erraldoia eta lorez beterikoa zen berriz.



Horixe izan zen Puppiren abentura.

Telefono mugikorra eta Iker

Lara González
La Salle Bilbao HLBHIP, LH 4. maila

Igandea zen eta Ikerrek hamar urte egin zituen.

Karmela, Ikerren izekoa, makarroiak jatera joan zen Ikerri gehien gustatzen zitzaion janaria zelako, eta postreetan oparia eman zion. Ikerrek azkar ireki zuen eta oso pozik esan zuen: —Mugikor bat! Ze guay! Ikaragarria zen. Urdin argia zen, estalkiarekin, argazki kamararekin...

Iker oso pozik eta nagusi sentitu zen. Bere izekoari besarkada handi bat eman zion eta joan egin zen.


Arratsalde guztian egon zen mugikorrarekin jolasten. Gaez, ohean, aitak azaldu zion asteburuetan bakarrik erabili ahal zuela. Ikerrek pentsatu zuen: —Ze pena! Nire lagunei erakustea gustatuko litzaidake. —eta klaseko motxilan ezkutatu zuen.

Hurrengo egunean, jolasketan lagunei bere altxorra erakutsi zien. Oso pozik zegoen mirespen handia zeukan eta. Eskolako egunik hoberena zen.

Arratsaldean ama Ikerren bila joan zen. Gero, bere auzoko liburutegira joan ziren liburu bat uztera eta beste berri bat hartzera.

Liburutegian zeuden eta momentu hartan... oh! Bere mugikorra zen! Bere amak haserretuta begiratu zion. Riiiiiiing!!! Liburuzainak ere bai. Riiiiiiing!!! Denek begiratu zuten. Riiiiiiing!!!

Ikerrek ez zuen gehiagorik pentsatu eta korrika egin zuen aterantz. Hurbil zegoen eta bat batean... piii!!! entzun zen: "Baina, zer da hau?" Piii!!!



Orduan liburuzaina oihuka hasi zen: —Lapurra! Lapurra!

Ikerrek emakumeari begiratu zion eta barreka ari zen. Amari begiratu zion eta bera ere barre egiten ari zen. Liburutegiko guztiek barre egin zuten. Orduan, bere eskuan liburu bat zuela eta alarmak jo zuela konturatu zen.

Gutziz lotsatuta, liburuzainari liburu itzuli zion eta amari mugikorra. Amak irribarre batekin esan zion:

—Zerbait ikasi duzu?

Ikerrek, oraindik lotsatuta, erantzun zion:

—Bai ama, oraindik txikia naizela telefono mugikor bat edukitzeko. Begira zer egin didan! Uste dut ardura behar dela erabiltzeko eta ez dela jostailu bat.

Denek irribarre egin zuen.

Hurrengo egunean, Ikerrek izekori mugikorrarekin pasatu zitzaiona kontatu zion eta galdetu zion ea aldatu ahal zuen beste gauza baten truke. Izekok erantzun zion:

—Bai, noski! Zoaz nahi duzun dendara eta erosi gehiago gustatzen zaizuna.

Ikerrek oso pozik esan zion: —Eskerrik asko, izeko!

Bi egun pasa eta gero, Iker bere gurasoekin jostailu denda handi batera joan zen eta hantxe ikusi zuen nahi zuena:

—Bizikleta bat! Hau izango da nire opari berria!

Kamal Bilbon

Maitane Boillos Pereira
Luis Briñas-Santutxu LHI, LH 4. maila

Behin batean bazegoen mutil bat hamazazpi urte zeuzkana. Kamal zuen izena eta Kairoko auzo txiro batean bizi zen. Eskolan beti zegoen ametsetan beste leku batera joan nahi zuelako ikastera. Baina berak bazekien ezin izango zela, bere familiak dirurik ez zeukalako.

Egun batean, eskolan zegoen kartel batean, irakurri zuen zozketa bat egingo zela. Saria urte betez beste herri batera ikastera joatea zen. Kamal oso pozik zegoen eta bere izena idatzi zuen.

Hilabete bat pasa eta gero, emaitza ikusi zuen eta bere izena idatzita zegoen. Oso pozik, lasterka, bere gurasoengana joan zen eta esan zien bidaia tokatu eta Bilbora joango zela. Bere gurasoek hasieran ez zuten sinetsi baina gero triste jarri ziren Kamal joango zela pentsatu zutenean.

Egun batzuk pasa zirenean, Kamal aireportura joan zen. Hegazkinean sei ordu egon zen eta azkenean Bilbora ailegatu zen. Ez zekien ondo non zegoen eta taxi bat hartu zuen. Taxistak ez zion ondo ulertzen baina azkenean esandako helbidera eramanean zuen. Kamalaren etxea oso handia zen. Oso pozik zegoen ez zuelako inoiz hainbeste gauza berririk ikusi.

Hurrengo egunean eskolara joan behar izan zuen eta, bide batez, Bilbotik buelta batzuk eman zituen hiria ezagutzeko. Hurrengo egunean kalera irten zenean bere eskolako neska bat ikusi zuen. Neska hori Tamara deitzen zen eta hitz egiten hasi ziren. Kamal esan zion:

—Bilbon ibiltzean beldur naiz eta ez dakit ondo euskaraz hitz egiten, gainera batzuetan hiritik galtzen naiz eta ez dakit zer egin.

Tamarak esan zion berarekin hitz egin ahal zuela eta berarekin nahi zuen lekura joan ahal izango zela.



Tamara hasi zen Kamali Bilbo erakusten: zubiak, Guggenheim museoa, Begoñako Basilika, Santutxu auzoa... Kamal oso pozik zegoen inoiz ez zituelako hain gauza politak ikusi eta esaten zuen jendea oso atsegina zela.

Gero eta alaiago joaten zen eskolara, euskaraz hobeto hitz egiten zuelako eta hobeto idazten zuelako, lagun gehiago zituelako... Dena Tamarari esker.

Udazkena ailegatu zenean, Tamarak erakutsi zizkion Euskal Herriko leku politenak: Nerbioi ibaiaren iturburua, Bakioko hondartza eta Bermeoko portua, baita Pagasarri mendia ere. Kamali oso polita iruditu zitzaion. Dena, bere herrialdearekin konparatuz, oso desberdina zen.

Eskolan dena ondo zihoan eta gurasoei eskutitzak idazten zizkien Bilbo oso polita zela eta leku oso garrantzitsuak zeudela esaten. Jendea oso atsegina zela eta eurak ikusteko gogoa zuela.

Negua ailegatu zenean, Tamara eta bere lagunek Kamal eraman zuten berriro mendia ikustera. Eta zer zegoen han? Elurra zen!! Kamalek ez zuen inoiz elurrik ikusi. Hain harrিতa zegoen, ze ez zekien zer egin elurrarekin. Hain zen hotza eta arraroa! Bere lagunek esan zioten elurra hartzeko, eskuetan elurrak kili-kiliak egiten zizkien eta. Kamalek ez zuen sinesten bizitzen ari zena.

Bere lagunek galdetu zioten ea elur piloten borroka egin nahi zuen eta berak baietz esan zuen. Gero, jolasten hasi ziren. Elur pilota bustiak bere gainean erortzen ziren, baina berari ez zitzaion inporta oso pozik zegoelako.

Kamal beti zegoen esaten denbora gutxi barru Kairora bueltatuko zela eta oso triste zegoela. Konturatu gabe, gauzak prestatzeko garaia heldu zen. Klaseko azken egunean lagunak jai bat egin zioten eta opari asko izan zituen.

Zoritxarrez, azken eguna heldu zen eta aireportura joan ziren. Han bazeuden lagun guztiak Kamal agurtzeko. Oso triste zeuden baina Kamali esan zioten bisitatzera joango zirela Egiptora.

Egiptora ailegatu zenean zain zeuden bere gurasoak eta oso pozik zeuden. Kamalek esan zien Bilbo oso polita zela, leku oso interesgarriak ezagutu zituela eta lagun oso onak egin zituela.

Uda berriz ailegatu zenean, Tamara Kamal ikustera joan zen eta Egipto osoa erakutsi zion eta oso pozik egon ziren biak.

Betirako lagunak izan ziren.

Kroly

Olaia Alberdi Sololuze
Txurdinaga LHI, LH 3. maila

Kaixo lagunok:
Orain Bilboko Ripa kalean bizi naiz. Pasa den igandetik familia berri bat daukat: aita, ama, amama, hiru seme-alabak eta ni. Salako apal batean nago, telebista ondoan eta beti bezala, kaiola barruan. Amak TXIO-TXIO deitzen dit, baina nik nahiago dut alaba txikiak jarri didan izena: KROLY.

Familia honetara iritsi aurretik, mila tokitan egonda nago. Ni Afrikan jaioa naiz Baoba zuhaitzean.

Nire ama janari bila joan zen, ni anaiekin utzita. Anai nagusiena hegan joan zen eta erdikoak lagunak ikusi eta ospa egin zuen, ni bakarrik utzita. Bat-batean ehiztari bat agertu zen eta DANBA.

Esnatu nintzenean itsasontzi batean nengoen zauriturik, nire lagunengandik urrun. Londresera iritsi nintzen gero. Hura bai hiri handia! Han ikusi nuen munduko erlojurik garran-



tzitsuena. Handik gutxira ekaitza hasi zen. Ba al dakizue Londresek daukala laino itxi bat, munduan bakarra, SMOG deitzen dena? Ba hori ere ikusi nuen.

Londres pasa eta, zer pasa zen orduan? Hori nik ez dakit, lo hartu bainuen. Gogoratzen dudan hurrengo pasartean hegazkinean nengoen leihotik begira: mendi ugari, larre berdeak... Orduan konturatu nintzen hura Euskal Herria zela. Bilboko aireportuan nengoen. Gelditu eta kotxe bat hartu nuen, baina pentsatu nuen: "Hau bai pena! Londresen ez dut Sherlock Holmesen etxea ikusi".

Bat-batean kotxea gelditu egin zen. Bilboko Plaza Berrian nengoen. Goizeko 10:00ak ziren. 12:00etan ume bat eta bere amama etorri ziren. Umea ni seinalatzen hasi zen eta amama nire jabearekin hizketan. Azkenean kaiolan sartu eta beren etxera eraman ninduten.

Umea igerilari bikaina da eta txapelduna Krol estiloan. Horregatik jarri zidan KROLY izena.

Eleneren jostailuak

*Maria Estebanez Santoz
Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 3. maila*

Elenek 5 urte ditu eta Bilbon bizi da.
Elenek jostailu asko ditu: panpinak, ezpatak, kotxeak, motorrak, ...
Gauero Eleneren jostailuak hamabietan piztu egiten dira. Elene hamarretan oheratzen danez, ez da konturatzen.

Gau baten Elene bere izeko Lorenaren etxera joan zan afaltzera eta gero etxera itzuli zan hamaika t'erdietan.

Etxera sartu zanean, Elene bere logelara joan zan. Arropa kendu, pijama jantzi eban eta ohera sartu zan.

Elene hamabi t'erdietan esnatu egin zan eta komunera joan zanean, kotxe bat bueltak emoten ikusi eban. Orduan aitaren eta amaren ohera joan zan.

Elenek kontatu eutsen gertatutakoa eta aita eta ama Eleneren logelara joan ziran arineketan baina, sartu ziranean, ez eben ezer ikusi. Kotxea geldik egoan. Elenek amets gaizto bat izan zala pentsatu eban.

Hurrengo egunean, aitari eta amari kontatu eutsen gabaz ikusitakoa baina ametsa izan zala erantzun eutsoen.

Elenek ikastolako lagun guztiei kontatu eutsen gertatutakoa baina lagunek ez eutsoen sinetsi.

Bere lagun batek esan eban:

—Egia edo guzurra dan jakiteko, zure etxera lo egiten joateko baimena eskatuko dot.

Gurasoek baimena emon eutsen eta barikuan laguna Eleneren etxera joan zen lo egitera. Hamabi t'erdietan esnatu ziran eta ikusi ebezan: panpinak kotxeetan sartuta eta motorrak panpinak zapaltzen, ...

Elene eta laguna korrika joan ziran Eleneren aitaren eta amaren logelara gertatutakoa kontatzeko baina ez eutsen sinestu berriro.

Orduan esan eban Eleneren amak:

—Egia ala guzurra dan jakiteko, bihar zure gelan egingo dot lo.

Hurrengo gauean, ama Eleneren logelara joan zan lo egitera baina esnatu ziranean ordu batak ziran eta ez zegoen jostailurik mugitzen.

Orduan Eleneren amak esan eban amets bat izan zala. Baina Elenek egia zala esaten eban.

Eleneren amak esan eutsen:

—Zu ze ordutan joan zinen komunera?

—Hamabi t'erdietan ikusi neban. —erantzun eban Elenek.

—Ba berriro geratuko naz lo egiten. —esan eban amak. Hurrengo egunean, Elenek esan eutsen amari:

—Ama, ez dot nahi zu nire logelan lo egiten geratzea. Eroan nire jostailu batzuk.

Gauean Eleneren ama esnatu zan eta kotxe bat panpin bat zapaltzen ikusi eban.

Orduan amak esan eban egia zala.

Hurrengo egunean, Eleneren aita lanera joan zan eta laneko batek esan eutsen:

—Egun guztietan ahazten jat zuri esatea eroan zenduzan pilekin panpinak hamabietan pizten direla.

Orduan, azkenean, aitak kontatu eutsen Eleneri gertatutako.

Eleneren lagunak pila horreek erosi dabez jostailuak zer egiten daberen ikusteko.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Nire bizitza

Unai López Uribelarrea
Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 5. maila

Sei urte nituen eta nire gurasoek udan gurutzaldi batera joatea erabagi eben. Ez neban oso gustuko izan baina banekien ondo igaroko nebala. Bat-batean amaren ahotsa entzun neban eta berehala konturatu nintzen itsasontzira joan behar ginela. Dena arineketan prestatu gendun eta korrikan porturaino abiatu ginen. Heltzeaz batera, itsasontzian sartu eta gure logelan dena itzi genduan.

Bi egun egon ginen itsasontzi haretan. Baina hirugarren eguneko goizean, itsasontziko jendea korrikan hasi zala ikusi neban eta egia zen korrika egiteko momentua zala itsasontzian ura sartzen hasi zalako. Bidai haretan galdu nituen nire gurasoak. Ez nituen gehiago ikusi.

Itsasontzia ondoratu zan momentuan ez neban beste aukerarik ikusi eta, uger eginez, bertako irla batera joan nintzan. Han pirata antzeko jendea ezagutu neban eta eurekaz gelditu nintzan.

Nire gurasoen falta neban eta gauero itsasora sartzen nintzan eurekaz egoteko. Nahiz eta eurak hilda egon, eurekaz pasatzen neban gau osoa. Hobeto esanda euren izpirituagaz.

Orain 24 urte ditut eta oraindik irlan segitzen dot. Bertan nire etxea eraiki dot nire emazte eta seme-alabekin bizitzeko.

Gauero, denok batera, itsasoan sartzen gara neure gurasoekaz egoteko eta goizero laurak batera oso ondo pasatzen dogu.

Aaaah!!! Labezomorro bat!!!

Janire Muñoz
Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 6. maila

Zergaitik izango ote da emakumeen oihu berberak entzuten dodazala ni ikustean?

Ez dot ulertzen. Erantzun bakarra beldurtzen ditudala izango da. Ja ja ja.

Zergaitik eukiko deutsoe beldurra nire moduko intsektu eder eta dotoreari?

Ai ene, barkatu! Oraindik ez naz aurkeztu. Hau burua!!! Uste dot badakizuela nor nazen. Lorenzo labezomorroa naz, labezomorro lirain-liraina. Oraindik gaztetxoa naz, hogeita bat urte baino ez daukadaz. Galdetzen egongo zarie familiarik badaukadan. Baina ez, ez daukat. Emaztebako gazte dotore eta zoriontsua naz orain.

Labezomorro gehienak gizakien zapaten ondorioz hilda amaitzen dabe. Zorte handiz, niri ez jat hori gertatu. Orain oso zoriontsua naz, ez beste labezomorro batzuen moduan. Guztia hasieratik kontatuko deutsuet:

“Egun baten, etxe handi-handi bateko leihotik panpinez beterik egoan logela batera sartu nintzan. Lasai-lasai ibiltzen ninoiala, bat-batean neskatila batek oihukatu eban:

—Ama, ama!! Labezomorro bat!!!



Amak, logelan sartu zenean, itzelezko oihu bat egin eban:

—Lagundu, labezomorro bat!!!

Orduan aita, zapatarekin eskuan, ni hiltzen saiatu zan, baina oso ondo ezkutatu nintzen. Nire tamainako panpinak egozan etxetxo baten nengoan. Nekatuta nengoanez, gaua han igarotea erabagi neban.

Hurrengo goizean, etxetik alde egitera ninoiala, haur txiki bat topa neban papillea jaten. Ni ikustean antenatik hartu eta ahora sartzera ninduanean, bat-batean bere zaindaria esan eutsan:

—Bota hori! Hori bai nazkagarria!! Labezomorroa da eta!!!

Guztiek gauza berbera esaten eustielako, ni oso triste, eta negarrez alde egin neban. Euria zan eta ez neukan nora joan.”

Hemendik aurrera hasi zan nire zortea. Ikusi, ikusi:



“Kaletik ninoiala, etxolatxo baten sartu nintzen. Bazirudian han inor ez egoela. Bat-batean atea irekitzen entzun neban. Atso zahar eta txiro bat baino ez zala konturatu nintzen. Atsoak ni ikustean ez eban oihukatu, kontrako guztia baizik. Ni harrিতuta eta, nola ez, pozik nengoen!!! Eskuetan hartu ninduan eta hauxe esan eban:

—Zer egiten dozu nire etxolatxoan? Bildurtuta eta hoztuta zagozala dirudi. Trankil egon, nik ondo zainduko zaitut. Bihar goizean leku ikusgarri batera eroango zaitut.

Horrela izan zen. Goizean, herri horretako parke handira eraman ninduan. Leku ha jendez beterik egoan eta oso polita zen. Baina gauza bat falta jatan parkea guztiz ona izateko: Nire moduko beste labezomorro bat. Orduan bila hasi nintzen handik baina alferrik izan zan.

Bat-batean ume batek hartu eta kristalezko kutxa baten barruan sartu ninduan. Oso bildurtuta nengoen. Zer gertatuko ote zan pentsatzen nengoela, beste intsektu batzuez beterik egoan apal baten utzi ninduan. Han nire arrazako neska bat ikustean, maitemindu egin nintzen. Hain da liraina!”

Kontatu deutsuedan moduan, orain apal baten nago. Esaten egongo zarie bizimodu aspergarria dala. Erratuta zagozie. Hemen ezagutu dot nire bihotzeko neska eta gainera egunero haurren irribarreak ikusten dodaz gugaz jolastean.

Gogoratu, munduan oso pertsona eskuzabalak eta bihotz onekoak dagoz eta ez dira aberatsak izan behar. Ni atso horregatik naiz orain hain zoriontsu.

Hurrengora arte lagunak!!!



Kolon oraindik bizi da!

*Guillermo Manzanares Dominguez
La Salle Bilbao HLBHIP, LH 5. maila*

Bilbon, 2006ko urtarrilaren 6an.
Nire izena Bruno da eta hamahiru urte ditut. Badauzkat lagun asko baina nire lagunik onena Laura da. Berak ere hamahiru urte dauzka.

Gau magiko hartan gurekin lo egin zuen. Esnatzean, opariak zabaltzera joan ginen eta handi-handia zen bat zegoen niretzat. Nire lagunaren, Liborius doktorearen, ohartxo bat zegoen. Zera esaten zuen:

“Kaixo Bruno: Errege magoei esan diet opari hau eramateko. Iraganeko pertsonak ekarri ahal dituzu berarekin! Musu handi bat. Liborius”.

Bat-batean, nire arreba txikiak salto egin zuen makinaren teklatura eta “Kolon” idatzi zuen. Makina tximistak botatzen hasi zen. Ondoren, pertsona bat atera zen makinatik. Nire arrebak oihu egin zuen eta gurasoak esnatzera joan zen.

Laura eta biok begiratu ginen eta gero Kolonek esan zuen.

—Zer da hau? Non nago? Hau ez da nire ontziko kabina.

Ni gurasoen oihuak entzuten hasi nintzen. Oso azkar, Laurak aitaren opari bat zabaldu zuen. Motxila erraldoi bat zen.

—Azkar, Kolon jauna, sartu hona. Esperimentu bat egingo dugu!

Eta nire gurasoak sartzen ziren momentu berean, Kolon motxilan sartu genuen.

Gurasoak inor ez zegoela ikustean, ohera bueltatu ziren.

Laura eta biok motxilarekin kalera joan ginen eta Kolon ateratzean Guggenheim ikusi eta esan zuen:

—Hor dago nire Santa María! Eta korrika joan zen.

Kolonek zoroetxean amaitu zituen bere egunak, Puppiri “munstro, munstro!” esaten zion bitartean latak botatzen zizkiolako.

Guk zakarrontzira bota genuen makina.

Eta horrela, amaitzen da ipuin hau. Hori bai, Ameriketan egon barik.

Asto baten bidaia


Bruno Barquilla Marin
Maestro Garcia Rivero LHI, LH 6. maila

Begiak ireki nituen lehenengo aldian, guztia zirriborrotu zegoen. Nire ama, nire ama baldin bazen aurrean zegoen asto eme hura, niri begira zegoen. Zutik jartzen saiatu nintzen eta orduantxe konturatu nintzen lau hanka mehe eta ahul nituela nire gorputz eta buru txikia eusten. Oso latza izan zen zutik jartzea baina, lortu bezain pronto, amarengandik esnea edaten hasi nintzen.

Lehenengo asteak oso zailak izan ziren niretzat. Ikuilu barruan zeuden animalia eta leku guztiak ezagutu behar izan nituen eta azkenean, pixka bat handitu nintzenean eta indarra hartu nuenean, amarekin ikuilutik kanpora belarra jatera atera nintzen. Haiek izan ziren nire lehenengo asteak. Benetan penagarriak orain naizenarekin konparatuta!

Baina guztia ezin zen hain ondo atera. Gau batean txarto sentitzen hasi nintzen eta lehenengo aldiz nire osasuna huts egiten hasi zen. Sabelaren atzeko aldean min izugarria nuen. Ea-ea ezin nintzen mugitu ere egin. Nire amak pasatuko zitzaidala zioen baina nik ez nion sinestu.

Azkenean baserritarrak atzeman zuen nire gaixotasuna eta albaitariari deitu zion gure ikuilura etor zedin. Bi



egun ondoren heldu zen. Gona zuri luze eta zikina zeraman. Eskuak zauriz beteta eta betaurreko handi eta itsusiak zituen. Baserritarrak soka bat hartu zuen. Sokaren mutur bat nire burutxora eta beste muturra lurrian sartuta zegoen makila batera lotu zuen. Lotuta nengoen. Albaitaria nire hankak begiratzen hasi zen. Nik esan nahi nion han ez nuela minik, sabelaldean baizik. Baina ezin izan nuen, ez baitzidan ulertu. Azkenean sabelean aurkitu zuen gaixotasuna. Zerbait esan zion baserritarrari eta joan egin zen.

Baserritarrak soka askatzen zuen bitartean, albaitariaren kotxea entzun nuen herrira jaisten. Gizonari begiratu nion eta bere aurpegian ikusi nuen tristura keinuak larritu egin ninduen. Zerbait txarto zihoan.

Handik egun batzuetara, gurpilak zituen metalezko kutxa handi baten barruan sartzerara behartu ninduten. Atea itxi zuten eta handik segundo gutxitara kutxa mugitzen hasi zen. Zorabiatu egin nintzen. Lurrera bota nintzen lokartzeko asmoz eta lortu egin nuen. Begiak zabaldu nituenean, metalezko kutxaren atea irekitzen ari zen. Bat-batean hiru gizon sartu, muturretik lotu eta kanpora eraman ninduten. Haiekin eraman ninduten eta bi harresi txikiren artean ipini ninduten. Ondoren xiringa bat eta aizto bat ekarri zuten. Orduantxe konturatu nintzen hiltegi batean nengoela eta hil egongo nindutela. Izugarrizko beldurra sentitu nuen gorputz osoan. Hain sakona zen beldurra, non nire gorputzaren alde guztietara banatzen zen. Ezin nintzen mugitu ere egin. Orduan mirari bat gertatu zen. Atzeko hanken beheko aldearen bi aldeetan lau hegal txiki atera zitzaizkidan eta astintzen hasi ziren oso arin. Hain arin non hegan egiten hasi nintzen gero eta altuago, gero eta altuago. Hiltegiako langileek oihuka egiten zuten harrituta. Orduantxe erabaki nuen nire bizitza uztea eta bidaia berri eta zirrara garri bat hastea eta leiho batetik atera nintzen inoiz ez bueltatzeko.

Mendiak eta ibaiak, mendikateak eta itsasoak hegan eginez atzean utzi nituen. Beldurra txikitzen joan zen eta orduan ohartu nintzen hegoak ere txikitzen zihoazela. Oso larritu nintzen eta lurrera ziztu bizian jaitsi nintzen. Behin lurrean, guztiz lasaitu eta lokartu egin nintzen zuhaitz baten azpian.

Bat-batean esnatu egin nintzen. Minaz jota nengoen eta orduan gogoratu nintzen gaixotasunaz. Asko-asko larritu nintzen. Erabakiren bat hartu behar nuen azkar eta, beste irtenbiderik ez nuenez gero, laguntza bila atera nintzen. Asto gaztea nintzen eta korrika egin ahal nuen azkar denbora luze batean nekatu barik baina gaixotasunak eragiten zidan minarekin astiroago joan behar nintzen. Azkenean martxan jarri nintzen. Astiro nihoan baina gelditu barik.

Gaixotasunak gero eta min gehiago egiten zidan eta aste batzuen buruan gelditu behar izan nintzen. Kobazulo handi, sakon eta ilun batean sartu nintzen eta, guztiz nekatuta nengonez, lokartu egin nintzen. Denbora luzez egon nintzen lotan sakon eta esnatu nintzenean ustekabe bat hartu nuen. Nire ondoan emakume zahar bat zegoen egurrezko aulki batean eserita. Mina neukan lekuan odolez beteta zeuden hosto handi eta busti batzuk zeuden. Bat-batean andreak haxe esan zidan:

—Azkenean esnatu zara!

Nire hizkuntza berbera hitz egiten zuen.

—Bai, esnatu naiz —esan nion. —Baina non nago? Nor zara zu? Eta zer egin didazu gaixotasuna nuen lekuan? —gehitu nuen.

—Lasai, lasai, oraintxe erantzungo ditut zure galderak baina lehenago tori, —eta ur katilu bat eta ogia jarri zizkidan mutur aurrean —behar dituzu.

Eskerrak eman nizkion eta hitz egiten utzi nion.

—Ea, nondik hasiko gara? Ah, bai, begira. Hau nire etxea da eta, sartu naizenean, hemen aurkitu zaitut. Ni lehen atso normala nintzen baina herritik bota ninduten sorgina nintzela uste zutelako eta orain hemen bizi naiz. Beno, zure gaixotasunaren zergatia kontatuko dizut: Giltzurrunean inflamazio bat eduki duzu eta denborarekin handituz joan da eta horregatik daukazu min. Nik giltzurrunaren aldetik sabela ireki dizut, inflamazioa kendu dut eta pomada bat ipini dizut. Gero zure sabela josi dut eta hosto hauek jarri dizkizut hobeto sendatzeko.

Harritura gelditu nintzen, hitzik gabe. Orduan hitz egiten hasi nintzen:

—Ah, ondo da, mila esker. Zure izena jakin ahal dut?

—Lehen Pepi deitzen zidaten. Orain inork ez nau deitzen, beraz ez daukat izenik. —esan zuen berak.

—Ei! Nik ere ez dut izenik. —esan nion.

—Beno, azkenean ez gara hain desberdinak izango —esan zidan berak.

—Bai, hori izango da.

Han denbora bat gelditu nintzen sendatzen eta pasatu zitzaidan guztia asimilatzen. Aste batzuen buruan etxera bueltatzeko unea heldu zen eta oraindik kezka bat nuenez galdera bat egin nion:

—Zergatik uste zuen herriko jendeak sorgina zinela?

Iribarre maltzur bat agertu zitzaion bat-batean aurpegian.

—Bah, ez dakit. Haien kontu txoroak ziren. —esan zuen. Beno, utzi galdetzeari. Gaur gauean akelarrea daukagu, ostirala baita.

Harritura gelditu nintzen.

—Ah! Orduan benetako sorgina zara!

—Noski baietz. Nola bestela jakingo nuke zure gaixotasuna sendatzen eta zure hizkuntzan hitz egiten? Beno, agur esateko momentua heldu da. Inoiz arte txikito!


—Agur zuri ere.

Eta kobatik irten nintzen korrika. Inoiz ez nuen ahaztuko ez kobazulo hori, ez bertan bizi zen sorgina, ezta nire gaixotasuna eta bidaia ere. Banekien ezin izango nintzela etxera bueltatu eta, beraz, ez nekien zer egin. Korrika hasi nintzen norabiderik gabe eta orduan konturatu nintzen izugarritzko abiada hartzeko gai nintzela eta zaldiak baino azkarrago egin ahal nuela korrika. Orduan ideia bat izan nuen eta herriz-herri hipodromo baten bila hasi nintzen. Aurkitu nuenean zaldi lasterketa baten erdian pistara atera nintzen eta korrikan hasi nintzen. Zaldi guztiak atzean utzi nituen nahiko erraz eta helmugara lehena heldu nintzen.

Han jende inportante askok korrika egiten ikusi ninduen eta asko gustatu nintzaian. Batzar bat egin zuten ea asto batek zaldi lasterketa batean parte hartzerik

zuen erabakitzeko. Baietz adostu zuten eta gizon batek "fitxatu" egin ninduen. Orain kontinente osoan zehar lasterketak irabazten ditut eta ziur nago sorgina izan zela halako abiadura eman zidana.

Beno, hau izan da nire orain arteko istorioa. Espero dut gustatu izatea.



Gnomo bat gudan

*Julen Gago Bajo
Abusu Ikastola HLBHIP, LH 5. maila*



Bazen behin gnomo bat Felipe deitzen zena. Felipe gnomoak emazte bat, seme bat eta alaba bat zeuzkan. Emaztea Josefina deitzen zen, semea Josetxu eta alaba Maria Teresa. Denak oso pozik bizi ziren.

Egunero, arratsalde, kalera joaten ziren ping-pongera jolastera, tenisera jolastera, esku pilotara jolastera, futbolera jolastera, beisbolera jolastera, harrapaketara jolastera, lagunak egitera... etab. Beti denetara jolasten zuten.

Euria egiten zuenean bere zuhaitz etxera sartzen ziren eta han edozein jokotara jolasten zuten. Baina euririk egiten ez zuenean, kalera joaten ziren denetara jolastera.

Egun batean, futbolean jolasten zeundenean, Josetxu jausi eta hanka apurtu zuen. Felipek Josetxu ospitalera eraman zuen eta ospitalean hankan eskaiola jarri zioten.

Geroxeago, etxera heldu zirenean, Josetxuk eta Felipek Maria Teresa zoruan ikusi zuten. Maria Teresari zer gertatu ote zitzaion ez zekitela, honako hau esan zuen gizajoak:

—Gurpil horretatik jausi naiz eta eskuan mina hartu dut.

Felipek berriro ere ospitalera eraman zuen Maria Teresa azkar-azkar eta medikuek eskuan eskaiola jarri behar ziotela erabaki zuten.

Etxera heldu zirenean amak janari on-ona prest zeukan guztientzat eta aitak opari bat eman zion Maria Teresari. Josetxu protestaka hasi zen. Ez zuen bidezko ikusten berari oparirik ez ematea eta bere arreba txikiari bai, biek eskaiola baitzuten. Aitak azaldu zion bera Maria Teresa baino nagusiagoa zela eta Maria Teresa oraindik txikitxo zela. Horregatik zuela oparitxo bat batek eta besteak ez. Josetxu ez zen konforme gelditu azalpenarekin. Ez zuen bidezkoa ikusten. Berak ere oparitxo bat nahi zuen.

Egun batean, gnomo batzuek Feliperen telefonora deitu zuten eta Feliperi gnomogudara joan nahi zuen galdetu zioten. Felipek ezetz esan zuen baina, gnomo batzuk oso larri zeudela esan ziotenean eta gnomo soldadu batzuk hilda zeudela entzun zuenean, konpromezua hartu zuen.

Riki-raka Felipe gauzak gnomomaletan sartzan hasi zen. Egun horretan umeei eskaiola kendu zien eta Feliperi beraiekin jolasteko eskatu zioten. Felipe oso lanpetuta zegoela eta beraiekin ezin zuela jolastu esan zien umeei.

Minutu batzuk geroxeago, gnomoaerportuko bidean zegoen eta bat-batean szzzzzzz, gnomokotxearen gurpilak eztanda egin zuen. Felipek gnomogasolindegiko antzeko batera joan behar izan zuen. Garaje bat zegoen hurbil eta kartel handi batean erraz ikus zitekeen: gurpilak konpontzea 10 €, tunningeko gauzak 55 € eta gasolina 0,98 zent. Felipek gurpilak konpondu zituen eta gnomoaerporturako bidean 120km/orduko abiadura hartu zuten.

Bat-batean, gnomoaerportura iristear zegoela, lagun bat aurkitu zuen eta lagunak gnomogudara zihoala esan zion. Gnomokotxean sartu eta biek bidaia jarraitu zuten.

Bost minutu geroxeago, gnomoaerportura iritsi ziren eta oso larri zaurituta zegoen gnomosoldadu bat ikusi zuten.

Hegazkinean sartu zirenean, hegazkinak gauza arraroak egiten zituen: aurrera eta atzera, gora eta behera. Denetarik egiten zuen eta erabat kikilduta zeuden denak.

Azkenean, gnomogudara heldu eta eurei zegokien kaseta aurkitu zuten. Han denetarik zegoen: janaria, jolasak, magic kartak, surf egiteko ohola, armiarmak, igelak... A ze nolako sustoa hartu zuten! Atzera bueltatu eta martxan jarri ziren berriro gnomoaerportura joan behar baitziren. Tentel halakoak! Hegazkinez erratu ziren!

Bost minutu geroxeago, euren hegazkinaren deia entzun zuen. Gnomo-hegazkina hegaldia berriro jarraitzeko prest zegoen. Hortaz, gnomogudarako

bidaiari guztiak beren billetekin eta mailekin bigarren atera abiatzeko abisua eman zuten.

Felipek eta bere lagunak, bigarren atletik sartu baino lehen, Josefina, Josetxu eta Maria Teresa agurtu zituzten eta Josefinak honako hau esan zion Feliperi:

—Zorte ona izan eta zaindu zure burua. Ez zaitetz arriskuan jarri.

Felipek zin egin zion eta erantzun zion hau esanez:

—Zorte ona izan umeekin eta ondo zaindu. Asko maite zaitut. Ez arduratu nitaz. Dena laster eta ondo bukatuko da.

Berrero sartu zen hegazkinean, baina oraingo honetan hegazkin egokian. Arin-arin gnomogudarako lekura heldu ziren. Mila gnomo inguru zeuden bertan hiltzeko zorian.

Berkaniko ikusi zuten eta Felipek eta bere lagunak armak eta ezpatak hartu eta Bernaniko hil zuten. Gero, besteak Feliperengana joan ziren bera hil nahian. Felipek bati tripatik sartu eta bizkarretik atera zion bere ezpata. Gero, bazoka hartu eta tiroak bota eta gnomo batzuk hil zituen. Ez zuen gupidarik izan.

Baina, bat-batean, gnomo maltzur batzuk granada bat bota eta poltsikoan sartu zioten Feliperen lagunari. Eztanda ikaragarri bat entzun zuen Felipek. BOOM! Felipek atzera begiratu eta laguna seko zegoela ikusi zuen. Bere lagun mina hilda zegoen. Orduan Felipek bere amorru guztia atera zuen. Ez zeukan denborarik triste jartzeko. Mila gnomoetatik bederatzi geratzen ziren eta bat Felipe zen.

Gnomo maltzur batzuk tiroka hasi zitzaizkion Feliperi baina berak ere tiroka egin zien. Hiru bider eman zion bateri buruan. Lurrera jausi eta hil egin zen.

—Orain zortzi geratzen dira. Hil ditzagun guztiak! -esan zuen Felipek haserre bizian.

Geroxeago Felipek granada bat bota eta BOOM! Hiru hil zituen.

Josefina, Maria Teresa eta Josetxu hegazkinetik jaitsi eta aeroportutik gnomogudara joan ziren oso azkar. Felipe tiroka hasi zen eta beste bi hil zituen. Josetxu gnomogudara heldu zenean, Feliperi hankan tiro bat eman ziotela ikusi zuen. Felipe lurrean ikusi zuenean, Josetxu metrailetarekin tiroka hasi zen eta ta-ta-ta... entzun zen. Bati bi tiro eman zizkion buruan eta bigarrenari bihotzean.

Bakarrik geratzen zen aurkari bat eta esan zion Felipek Josetxuri:

—Nire ezpata utziko dizut eta zuk, Josetxu, azkeneko gnomoa hilko duzu!

Josetxuk lortu egin zuen Feliperen agindua betetzea. Felipek eta Josetxuk guda irabazi eta etxerako bidea hartu zuten.


Etxera heldu zirenean, Feliperi eta Josetxuri domina eta trofeo bana emango ziotela esan zien. Felipek baietz esan zuen eta jarraian joango zela esan zien arduradunei. Geroxeago, gnomokotxea hartu eta bi minutu eta gero, heldu ziren Felipe eta Josetxu eszenatokira. Bertara igo eta gnomoBilboko alkateak biei domina jarri zien eta trofeo bat eman zien.

Gero etxera heldu ziren domina eta trofeoa eskuetan. Denek zoriondu zituzten Felipe eta Josetxu. Josefinak eta Maria Teresak, Felipe eta Josetxu ikusi

zituztenean oso pozik jarri ziren eta musu bana eman zieten. Bat-batean Feliperen lagunak etorri ziren etxera zoriontzeko asmoz eta ardo botila bat atera eta denek edan zuten. Josetxuren lagunak ere bere etxera joan ziren zoriontzera. Josetxu zoriondu eta futbol partidu bat jokatzera gonbidatu zuten. Baina Maria Teresa eta Josefina etxean geratu ziren arropak eta etxea goitik behera garbitzen.

Gauetan, herri osoko jendeak festa bat antolatu zuen eta Felipe, Josetxu, Maria Teresa eta Josefina gonbidatu zituzten, Feliperen eta Josetxuren garaipena ospatzeko.

AMAIERA



Argen eta Tina

Unai Madariaga Zabala
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin Argen izeneko sardinatxo bat. Bere anaia bikia Tina zen. Oso ondo eramaten ziren. Beti jolasten zuten batera eta ez ziren inoiz haserretzen.

Eskolara joaterakoan Argeni “placton” ezko ogitartekoa jartzen bazioten eta Tinari otarrain-zerra, Argen ez zen haserretzen.

Atzo, Argenek eta Tinak bikain bat atera zuten azterketan eta orain oso pozik doaz Arraintxo eskolara.

Gaur ibilaldia egingo dute Balea Andrearen gainean eta Antxoa Maisuak Balea Andrearen barruan esploraketa egitea proposatu du.

Gaur oso pozik doaz eskolara batez ere motxila ez daramatelako, bihar Aste Santua da eta.

Ordu erdi plastika egiten egongo dira eta plastikako orduan askok hitz egin eta hitz egin baino ez dute egiten. Gaur guztiek egin dute hitz.

—Zer ote du Balea Andreak tripetan? Agian, marrazo handi bat du?

—galdetu du Argenek.

—Ez, ez horixe, Balea Andreak...

—Ondo da, ondo da, pelota! Egon ixilik! —esan du Tinak.

Piiii! —Ordua da, denok barrura! —esan du Antxoa Maisuak.

Denak sartu dira eta guztiek burua ateratzen dute zakatzetatik. Beno, guztiek, Tinak izan ezik. Tinak Argeni galdetu dio ia utziko dion burua ateratzen eta ezetz esan dio.

Tina, negarrez, ahotik urten eta etxerantz abiatu da inork ikusi gabe. Bidean galdu egin da eta arrantzale batzuek bera harrapatu dute olagarro batekin.

Tina eta Zortzitxo, olagarroa, ezin dira saretik atera. Azalerara atera dituzte eta burdinezko gauza handi bat ikusi dute. Arrain mota berriak ikusi dituzte gauza horretan. Zuriak ziren, lau hegalekin eta ezkatak kolore ezberdinekoak ziren.


Ez ziren gelditzen eta burdinezko gauza hura ere aurrerantz zihoan. Tinak, pentsatu eta pentsatu, plan bat eduki zuen.

—Zortzitxo, zuk korapiloan bi hanka jarri eta saiatu salto egiten. Beste birekin egin kili-kiliak niri buztana mugitzeko.

Zortzixok hori egin zuen eta sarea zulotu zuten. Gero joan egin ziren. Oso zorte handia izan zuten, balearen gainean baitzeuden.

Bizkarreko zulotik sartu ziren. Denak negarrez ari ziren, Argen batez ere. Argenek Tina ikusterakoan berarengana joan eta besarkada handi bat eman zion. Besteek berdin egin zuten. Gero etxera bueltatu ziren eta dena kontatu zioten bere familiari.

Orain Argen eta Tina ez dira berriro haserretuko, badaezpada.



Sorgin Maltzurra

Ane Sánchez Ruiz
La Salle Bilbao HLBHIP, LH 5. maila

Bazen behin Juana izena zuen sorgin bat. Garatxo asko zituen aurpegian eta bat sudurrean. Bere arropa koloretsua eta txikia zen, bera argala zelako. Kobazulo batean bizi zen bere senargaiarekin eta hamabost seme-alabarekin. Beraiek ez zuten janaririk.

Sorgina janari bila joan zen bere erratzarekin zerutik. Baina, arazoa: Sorginak ez zuen janaririk aurkitu eta etxera bueltatzean esan zuen:

—Ez dut janaririk aurkitu.

—Baina! —esan zion senargaiak haserretuta.

Sorginak ez zuen janari bila berriro joan nahi. Berak umeak zakuan eta kazolan sartu nahi zituen jateko. Parkera joan eta hogeit hamar urte lapurtu zituen. Etxera bueltatzean umeak gorde egin zituen inork ez ikusteko. Senargaiak ikustean esan zion:

—Ekarri duzu zerbait?

—Ez. —erantzun zuen.

—Zer tabernan garagardoa edaten, eh? —esan zion senargaiak.

Umeen amak eta aitak oso kezkatuta zeuden umeak ez zirelako agertzen. Amek eta aitek ez zuten ezer egin parkean jolasten zeudela uste zutelako. (Geuk badakigu ez daudela parkean jolasten, baina ez esan!)


Orduak pasa eta pasa, aita-amak ez ziren konturatu euren umeak ez zeudela. Beraiek hitz egiten eta hitz egiten jarraitu zuten, ezer gertatu ez balitz bezala. Ezer ez.

Sorgina, bere senargaia eta umeak joan eta gero, ume gehiago hartzera joan zen. Oturuntz bat jartzeko bere familia ez bazegoen. Bere familia ez zen bueltatu eta bera ere ez zen bueltatu. Galdetu zion bere buruari ea non zeuden baina bere buruak ez zuen erantzun.

Umeen aita-amak ez ziren konturatu ordu asko pasa zirela parkean hitz egiten.

Azkenean sorginak umeak kazolan sartu eta jan egin zituen. Oturuntza jarri eta bere familia oso pozik zegoen.

—Ze gozo dagoen afaria! —esan zuten den-denek.




Aitonaren istorioak

Garazi Santamaria Sanchez
Karmelo ikastola, LH 5. maila

Bazen behin aitona bat. Oso zaharra zen eta ipuin politak kontatzen zituen.

Egun baten ideia bat eduki zuen: Herriko umeei ipuinak kontatzea.

Orduan herrira jaisten zen eta plazaren erdian jesartzen zen ipuinak kontatzen eta ume eta guraso guztiek pozik entzuten zuten. Jende pila hurbiltzen zen entzutera eta jesarrita geratzen ziren pozik entzuten.



Orduak eta orduak ematen zituen ipuinak kontatzen eta jendeak entzuten. Era guztietako ipuinak kontatzen zituen, hori bai euskeraz: misteriozkoak, amodiozkoak, abenturetakoak...

Urteak eta urteak pasa ondoren, ipuinak eta ipuinak kontatu ondoren, ez zekien zein kontatu. Inoiz kontatu ez zuen bat bakarrik gogoratzen zuen. "BELDURREZKO" ipuin bat zen eta ez zekien ipuin hori kontatu ala ez. Ausartu egin zen. Kontatzerakoan, ume guztiak korrika eta oihuka hasi ziren:

—Aaaaaaaaaaaaa!!!

Aitona negarrez hasi zen minduta. Etxera joan eta istorio berri eta politetan pentsatzen hasi zen, baina ez zitzaion ezer bururatzen.

Herriko jendeak aitonari laguntzeko zerbait egin behar zela pentsatu zuen. Ideia bat izan zuten eta aitonari laguntzeko ipuinak kontatzen.

Egun horretatik aurrera, banan-banan, txandaka, herriko jendeak ipuin bat kontatzen zuen astero eta, horrela, aitona eta herriko biztanleak lasai eta pozik bizi izan ziren.

PERGAMINOA

*Izarne Alday Munilla
Kirikiño Ikastola HLBHIP, LH 5. maila*

Orain kontatuko dizuedan kondaira herri txiki batekoa da eta kondaira oso-oso zaharra da. Honela hasten da:
Miren Santakoloma mendian zegoen eguzkiak bere lehen izpiak atera baino lehen. Bere begi berde-grisek bere aurrean zeuden mendien antzeko kolorea zuten eta bere ileak eguzkiaren kolorearekin bat egiten zuen.


Miren eguzkiaren lehen izpiak ikusteko jaiki zen hain goiz. Baina Ikatz, bere txakurra, ez zen horretarako jaiki hain goiz, baizik eta mendian zeuden loreen usaina hartzeko; bestela goizean Fernandok behiak aske uzten zituenean hango loreak zapaldu eta zimeldu egiten zituzten. Eta horrek ez zion batere graziaz egiten.

Miren, eguzkiaren lehen izpiak ikusi ostean, baserrira joan zen Ikatzekin. Baserrian amona zuen zain bere motots jausiarekin. Amonak beti esaten zion ez joateko inora berari ezer esan gabe baina Mirenek ez zion kasurik egiten. Amonak bere begi beltzekin begiratu zion eta Mirenek agur esan eta baserri barrura sartu zen gosaltzera. Neskak bazekien amonak horrela begiratzen bazion, haserre zegoela eta haserre egin nahi ziola adierazteko zela; eta horrexegatik sartu zen etxe barruan.

Miren bere gurasoez oroitu zen. Bera txikia zenean, beraiei ezertxo ere esan gabe etxetik alde egiten uzten zioten. Baina, zoritzarrez, hegazkin istripu baten hil ziren. Eta egun horretatik aurrera bere amonarekin bizi izan da.

Mirenek horretan pentsatu eta gero, malkoak kendu zituen eta gosaltzen hasi zen. Gosaltzea amaitu ostean, paseatzera joan zen, amonari esan ondoren. Miren kanposantu aldera joan zen Ikatzekin. Halako baten, Ikatz kanposantu ondoko mendi batera joan zen eta Mirenek segitu egin zion.

Ikatzek harri baten ondoraino gidatu zuen eta harriaren ondoan mukizapi antzeko zapi bat zegoen. Neskak, mukizapia hartu eta irakurtzen hasi zen:



Neska harrituta geratu zen eta begiak paperetik kentzea lortu zuenean ez zion kasurik egin. Herriko mutikoren batek idatzitakoa zela uste zuen. Broma bat izango zen. Baina badaezpada amonari erakustea erabaki zuen bi gauzengatik: bat, ikusi zuenean, Ikatz zaunka hasi zelako, eta bi, Miren ez zelako ezertaz fidatzen. Baserrian, amonari erakutsi zion eta amonak, aurpegi larria jarritz, hau dena azaldu zion:

—Nire iloba gaixoa, ez zenuen paper hau hartu behar. —malkoak garbitu zituen. Neskak harrituta begiratzen zion eta honela segitu zuen amonak:

—Ez duzu inoiz entzun zerbait Maggi sorginaz?

—Ez. Eta ez dut sorginetan sinesten. —erantzun zion ahoa zabalduz eta aurpegi aspertua jarrita.

—Ez nago txantxetan. Hau egia da. Orain dela urte asko, asko eta asko bazen sorgin bat Maggi izenekoa, horko leize-zulo horretan bizi zena. Horregatik ez da ia ia inor joaten leku horretara madarikatuta dagoela esaten baitute. Maggi ez zen ia ia inoiz jaisten herrira. Baina behin, euri eta ekaitza ari zen egun baten, Maggi etorri zen eta ozenki hau esan zuen: “1.000.000 pezeta behar ditut nire edabe bat prestatzeko.” Gure arbasoek ez zioten eman, diru asko zelako eta ez zeukatelako hainbeste. Eta sorginak “itzuliko naiz bai, itzuliko naiz” esan eta gero airean desagertu zen. Mirenek galdera bat bota zuen:

—Bai, itzuliko naiz, itzuliko naiz,... eta zergatik ez da itzuli orain arte? Amona, hau herriko norbaitek idatziko zuen.

—Ez umetxo, ez umetxo. Hau dena Maggik idatzi du eta zuri tokatu zaizu zoritxarra... Ai umetxo ez zaitut berriz ikusiko! Ai umetxo...

Amona negarrez eta negarrez egon zen denboraldi luzetxo baten, eta iloba kontsolatzen bere ondoan muku zapia eskainiz.


—Amona herriko norbaitek idatziko zuen! Gainera, egia bada istorio hori, zuk esan duzun moduan urte asko, igaro dira Maggi hori bizi zenetik. Hilda egongo da!

—Umetxo, ez dakizu sorginak ez direla hiltzen? Edozein momentutan eraman ahal zaitu berarekin! Ai umetxo!

Gaua heltzean, Miren ohera joan zen. Eta izara azpian zegoen bitartean: “Agian egia da... eta egia bada eta froga horiek pasatu behar baditut? Eta ez baditut pasatzen? Han geratuko naiz. Ai amatxo!”

Miren maindire artean ezkutatu zen eta halako baten... bere gelako leihoa zabaldu eta txapeladun pertsona bat sartu zen. Miren oihuka hasi zen baina txapeladunak zapi bat ahoan jarri eta lotarazi egin zuen. Txapeladunak neska lepoan hartu zuen eta, leihora hurbiltzean, airean desagertu ziren barre algara batzuk egin eta gero.

Miren esnatzean, burua alde batera eta bestera mugitu ostean, konturatu zen ez zegoela ez bere gelan, ez etxean, ezta baserri ondoko zelairen baten ere. Zuhaitz erraldoi baten ondoan zegoen eta paper bat zegoen labana batekin zuhaitzari itsatsita. Neskak papera hartu zuen beldurrez. Hau zioen:



PAPERA LURREAN UZTEN DUZUNEAN,
KANTU BAT ENTZUNGO DUZU ZUHAITZEAN
AGERTUKO DIREN BITXI BATZUEN BATETIK,
ETA KANTUAZEIN ETATIK DATORREN
IGARRI BEHAR DUZU. ETA GERO BITXIA
HARTU ETA GOGOR ESTUTU.

Neskak papera lurrian utzi eta kantu goxo bat entzun zuen zuhaitzetik. Ingurura begiratu eta milaka bitxi zeuden zuhaitzetik zintzilik kolore eta forma ugarikoak. Ematen zuen ez zegoela bitxi bat ere forma edo kolore berekoa. Neska bere amamak esandako gauza batez oroitu zen: begiak itxi. Horrela errazago izango zitzaion kantua entzutea. Mirenek bazekien ez ziola huts egingo truko horrek, zeren eta askotan erabiltzen zuen kilkerak harrapatzeko, eta ez zion inoiz ere ez hutsik egin. Orduan begiak itxi eta kantua zetorren lekura joaten saiatu zen. Gero eta ozenago entzuten zuen kantua eta horrek esan nahi zuen gero eta hurbilago zegoela kantua zekarren bitxitik. Azkenean, ziur zegoenean bitxia bera zegoen lekuan zegoela, begiak zabaldu eta bi bitxi zeudela konturatu zen. Ematen zuen bietatik zetorrela kantu hori. Eta neska negarrez hasi zen. Txarto aukeratzen bazuen, han geratuko zen betiko sorgin horren esklabu. Baina

halako baten, bere amak hitz egiten ziola iruditu zitzaion. Entzuten zuen ahotsak honela zioen: “Umetxo maitea, zure buruaz fidatu behar duzu. Nik beti lagunduko dizut. Nahiz eta zuk ez ikusi, beti egongo naiz zure bihotzean zuri laguntzeko prest. Zutaz fidatu behar duzu. Ni zure barruan nago eta ikusten dut zuk badakizula erantzuna. Txarto egingo duzunaren beldur zara, baina nik badakit badakizula erantzuna. Fidatu zutaz.” Neskaren begiak negarrez bete ziren, bere ama zelako. Oso ondo goratzen zen bere ahotsaz: goxoa eta suabea zen. Amak esan ziona egin zuen.

Mirenek kolore berde-urdina zeukan bitxia hartu eta gogor-gogor estutu zuen. Eta argi hori batek eraman zuen leku horretatik kristal asko zegoen toki batera. Labirinto bat zen. Mirenek ingurura begiratu ondoren, ez zuen paperik ezta ezertxo ere aurkitu, baina berehala ulertu zuen zer egin behar zuen: labirintotik irten. Nahiko zaila ematen zuen. Bera zegoen tokian bost ate zeuden eta ziur zegoen, ate pila egongo zela ate bakoitzaren atzean. Baina beste truko bat zekien, hau da, beti ezkerretik joan behar zuen. Ezkerretik ibili zen denbora osoan. Eta handik 7 edo 8 ordu pasatu eta gero, estatua bat ikusi zuen, katu formarekin ate bat estaltzen. Mirenek ate horretara joan nahi zuenez, estatuatik pasatzera zihoanean, estatuatik ahots bat atera zen:

—Zenbat hilabetek daukate 28 egun? Neska bi gauzetatik geratu zen harrituta; lehenengoa, estatua batek hitz egitea baina horri ez zion garrantzi handirik eman, leku horretan dena magia zelako; eta bigarrena galdera erreza zelako: otsailak. Fidatzen ez zenez, ez zion erantzun zuzen-zuzenean eta pentsatzen jarraitu zuen. Eta azkenean erantzuna bota zuen: guztiak!

Katuak beste galdera bat bota zion: —zein postutan geratuko zara bigarrena aurreratzen baduzu? Beste galdera errez bat ematen zuen baina badaezpada lurrean zeuden harritxo batzuekin egin zuen. Hiru harri hartu zituen eta bat lehenengoa izango balitz jarri zuen, bigarrena lehenengoaren atzean eta azkena bera izango balitz lez, hirugarrena jarri zuen. Bera zen harria, mugitu egin zuen bigarrena aurreratuz eta konturatu zen bigarrena geratuko zela. Eta katuari esan zion erantzuna.

Katua erantzunak ondo zeudela konturatu ondoren, eskuinetara mugitu zen atetik pasatzeko libre utzirik. Eta neska kontu pixka bategaz, beldur zelako zerbait egingo ziola katuak, atetik pasatu zen. Atearen kanpoko aldean bahitu zuen txapeladuna aurkitu zuen. Jantzi zuri zikin bat zeukan eta buruan txapel gris ilun bat. Gerri aldetik, zapi gorri bat korapilo bategaz lotuta eta saman iduneko bat, eguzki bategaz eta urrezko katearekin. Eta ahots zakarragaz esan zion:

—Kaixo, ni Maggi sorgina naiz. Badakit zer ari zaren pentsatzen, bahitu zintuena ematen dut, ez al da horrela? Bera naiz! Jajajajajjaa!

—Ze...zer egiin nahaai duuzu niirekiin???

—Ikusi dut jarritako froga guztiak pasatu dituzula, zeuk bakarrik. Baina orain, azken froga denez, nirekin borrokatu beharko duzu! Jajajajajaaaaa!!!!

Mirenek ez zekien zer egin eta Maggi hasi zen jokaldiarekin. Labana batzuk bidali zizkion, bere magiarekin. Neska makurtu egin zen, ihes egin nahian. Eta sorginak bere idunekoko eguzkitik sua atera zuen. Eta suak Miren inguratu zuen

borobil txiki bat osotuz. Neska, urduri ez zekiela nondik eskapatu, bere amaren hitzetaz gogoratu, eta berpiztu egin balitz bezala Maggirengana joan zen. Mirenek bere gurasoen indarra sentitu zuen bere gorputzaren barruan. Eta Maggiren lepokoa kentzen saiatu zen, konturatu zelako lepokotik zetorrela magia guztia. Lehenengo bere gainera salto egiten saiatu zen, baina ezinezkoa, bera baino mila aldiz handiagoa baitzen, eta gainera suaren beste aldean zegoen, Gero, Maggi borobilaren barruan sartu eta gero, bere inguruan bueltak ematen saiatu zen, zorabiatzeko asmoz. Baina ezinezkoa, inguratzen zuen suzko borobila txikiagia zen bueltak emateko. Miren lur jota zegoen, urradura eta zauri pilarekin eta Maggi guztiz haserre. Sorginak desagertzeko sorginkeria bota nahi izan zion Mireni, baina Mirenen gurasoek indar guztiz, sorginkeria hori errebotatu eta Maggiri itzuli zioten. Eta horrela, Maggi desagertu egin zen toki horretatik. Miren bere gurasoen indarra galtzen ari zitzaiola konturatu zen, eta lurrera jausi eta zorabiatu egin zen.

Handik denboratxo batera Miren bere onera itzuli zenean eta begiak zabaltzea lortu zuenean lurtean zerbait distiratsua ikusi zuen. Sorginaren idunekoa zen, eguzkiarekin eta urrezko katearekin. Mirenek arazo larri bat zeukan ez zekien nola itzuli etxera baina argi zuri batek Santakolomara eraman zuen.

Santakolomatik herri osoa ikus zitekeen. Dena zegoen beti bezala gauza bat izan ezik: bere amama. Mundu guztiari esanez Miren Maggik eraman zuela. Baina normala den bezala inork ez zion kasurik egiten. Guztiek erantzuten zioten: “Utzi bakean!” edo “Badakizu nolakoa den zure iloba, zelairen baten egongo da lorak ikusten” edota “Ez nago txantxetarako”.

Amona gizajoa Mirenen bila zegoen ia-ia burua galduta zeukala. Eta Miren bere txakurrarekin trankil trankil etxean liburu bat irakurtzen sutondoan. Amona etxera heldu zenean begiak behin eta berriz igurtzi zituen eta tximurkadak egin zizkion bere buruari. Ez zuen ezer sinisten. Eta amonak hau galdetu zion:

—Ilobatxo, zu zara benetan? Ez nago ametsetan?

—Amona ni naiz. Ondo esnatu zara? Ez zaizu dorlojurik faltako ezta?

—Baina zu ez zintuen Maggik eraman?

—Zertaz ari gara hitz egiten? Nor da Maggi?

—Burua galdu dut?

Miren bere gelara joan zen barreari eutsi ezinik. Bere amona gizajoari ziria sartu zion. Mirenek beti bezala jarraitu zuen herritik, Ikatzekin. Hona eta horra abentura bila.

Esaten denez herriko inork ez zuen oso ondo ulertu amona. Egun hartatik aurrera, esaten zuten zoratuta zegoela. Eta Mirenek betirako gorde zuen sekretua. Maggiren idunekoa, kaxa seguru baten gorde zuen. Inork ere ez aurkitzeko sekretua. Ez dakigu zergatik ez zuen nahi herrikoak jakitun izatea bere sekretuaz. Eta amona gizajotxo...

***Eta... HOLAN BAZAN EDO EZ BAZAN,
SAR DADILA HERRIXKA HORRETAN
ETA ATERA DADILA KIRIKIÑO KO KLASEETAN!***

C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



Nire lagun maitea

Goizeder García Almaraz
Ignacio Ellacuria BHI, DBH 2. maila

Zoroetxe honetara ekarri nindutenetik bizirik irauten ematen dut egun osoa, horrekin nahikoa dut, ezin baita beste gauzarik egin hemen. Leku hau hain da negargarria, gela ilun eta itogarri honetan sartuta egun osoa, eta horrela beti, askotan, ohean etzanda nagoenean oroitzapenak etortzen zaizkit burura, zu orain nirekin egongo bazina..., orduan ez nintzateke hain bakarrik sentituko... Zurekin hain zen desberdina! Gogoratzen ditut gure barreak, zurekin emandako denbora, zure usaina eta gure gurasoen hitzak hona ekartzean “zuen onerako da, laster eskertuko diguzue...”. Zuk behintzat ezin izango dizkiezu eskerrak eman... Gure barreak ere gogoratzen ditut, hemen sartuta egon arren, zu beti alai eta irribarretsu... eta gure sekretua. Inor ez zen inoiz ezertaz ohartu, gure sekretutxoa, zu eta biok, beste inork ez zekien.


Gauero, inork ikusi gabe, zure logelara hurbiltzen nintzen pausu leunak eta isilak emanez, atea jo eta esnatzen zintudan, zu beti lotan zeunden, baina inoiz ez zenuen aitortu, horrelakoa zinen zu, nire aingerutxoa, nire panpina kuttuna...

Esnatzen zinenean, eroetxe honetako eskailerak jaisten genituen, erdi lotan, baina zaratarik atera gabe eta eskuak elkarri estututa.

Sukaldera sartzen ginen, ezkerreko armairu beltzeko bigarren apalean zeuden giltzak hartzen genituen. Handiena zen behar genuena, zaharra eta kaxkarra zen baina gu biontzat zeruko atea irekitzen zuen giltza zen..., gure giltza maitea..., janariaren armairua irekitzen zuen giltza.


Inoiz ez ginen biok batera sartzen, norbaitek han harrapatu izan bagintu, betirako bananduko gintuzkeen, eta hori jasanezina izango zen; horregatik, gutariko bat atean gelditzen zen, norbait bazetorren ez harrapatzeko, besteak noiz amaituko ote zuen itxaroten. Batak amaitzean, bestea sartzen zen.

Nik lehenengo hartzen nuena gailetak ziren, txokolate eta marrubizko gaileten poltsa, baina haiek arin amaitzen nituen, gero saltxitxa gordinak hartu eta ondoko armairuko bigarren apaleko tomate potean sartzen nituen tomatez estali arte, eta han egoten nintzen jan eta jan, botatzeko gogoa izan arte, hala ere, opilak gordetzen zituzten lekurantz joaten nintzen. Txokolate eta esne opilak jaten nituen Croissant eta erroskilez beterik nengoenean. Zerbait edatera joaten nintzen eta, azkenik, patata frijitu mordo bat jaten nuen. Isiltasuna gure sekretuaren oinarria zen, inoiz ez genion elkarri esaten jaten genuena.



Biok ase ginenean, eskailerak igotzen genituen isil-isilik, inor ez konturatzeko. Gauero egin arren, inoiz ez gintuen inork harrapatu. Gure logelara heltzean, bainugelan sartzen ginen eta han botaka ematen genituen hurrengo bi orduak.

Eta hori bai zela pozten ninduen momentua, nik egun osoan itxaroten nuen una. Milaka kaloria nire sabeletik atera, nire eztarritik igotzen eta nire ezpainetan sentitzen nuenean, gau hartan jandakoarekin irabazitako kilogramo guztiak nire gorputzetik ateratzean, aske sentitzen nintzen. Baina hori egiteko genuen arrazoi bakarra obsesio hura zen, horregatik, gauero sukaldera jaisten ginen eta horregatik egun osoan ez genuen ezer jaten. Zenbait teknika erabilia janaria zakarrontzira



botatzen genuen, eta gauero gosea eta obsesio hark bultzatzen gintuen mota guztietako janariaz asetzen.

Amaitzean, lodituko ginela konturatzean, botaka egitea zen argaltzeko modu bakarra, eta sentimendu hori ohitura bihurtu zen gure bizitzan.

Baina egun batean, zu joan egin ziren ni hemen bakarrik utzita, bakarrik eta babesik gabe, inor gabe ni zaintzeko eta ulertzeko, inor gabe ni laguntzeko... Horregatik, gorroto zaitut lagun maitea, ni hemen bakarrik utzi ninduzulako zu hiltzean. Beti nirekin egongo zinela zinpetu zenidan eta nigandik ez zinela urrunduko, eta zin dagizut laster zurekin batuko naizela. Baina zurekin batu aurretik, mundu honetan badaukat zerbait frogatzeko. Ez naiz mundu honetatik joango 0 pisatu arte, eta gudan sinetsi ez zutenei frogatuko diet.

Beharrezkoa bada, zugatik hilko naiz, ez naiz geldituko frogatu arte, pisu perfektua izan arte, 0 pisatu arte. MAITE ZAITUT.

Zure lagun maitea

Idaztearen lotsa

Unai Guillen Bilbao
Miguel de Unamuno BHI, DBH 2. maila

Kaixo, ni hamalau urteko mutil gaztea naiz. Lagunek (edo ikaskideek, ez baitira benetako lagunak) barre egiten didate. Pentsatuko duzue fisikoagatik dela..., baina ez. Ez naiz ez lodia, ez argala; ez altua, ez baxua; ez beltzarana, ez zurbila... Zaletasunengatik da. Besteei futbolean jokatzeari, kirola egitea eta neska ederrekin ibiltzeari gustatzen zaie. Niri ez. Niri neska atsegin eta benetako lagunak direnekin ibiltzeari, bertsoak botatzeari, irakurtzeari, musika entzutea eta idaztea gustatzen zaizkit. Batez ere, azken biak. Ez zait futbolean ibiltzeari gustatzen, ezta ikastea ere. Baina futbolean aritzen ez naizelako egiten didate barre. Lehen esan dizuedanez, idaztea atsegin dut. Etxera heltzen naizenean, ikaskideen barreak jasanda, idazten hasten naiz eta pailazo horiek bero-bero jartzen ditut ironiaz. Idazten dudanean aske sentitzen naiz. Eta askatasun sentsazio hori gutxihurtzen dute, batez ere herri honetan; idazleek eta musika jorratzen dutenek baino ez dute lortzen. Nire ustez idaztea, abestea eta musika jotzea paisaia eder berde eta bakarti batean egotea baino hobea da.

Oso idazle ona naiz baina lotsa ematen dit idazten dudana edonori erakusteak. Hala ere, biharko apustu bat egin diot lotsari: baietz bihar idatzitako gauza ederren bat neure lagun diren neskei erakutsi. Lotsak ez dit erantzun. Edo bai, barrez lehertzen hasi da. Baina ni ziur nago erronka gaindituko dudala.

Goiztxo esnatu naiz, lotsarekin daukadan apustuarengatik. Gosaldu eta ikastolara abiatu naiz, egunero lez, oinez. Ikaskide baten ondotik iragan naiz. Zu

“Atxaga Txiki” esan dit eta gero irribarre faltsu hori jarri du aurpegi horretan. Lagunengana joan naiz eta eskuak motxilara hurbildu ditut. Lotsak gogor tiratu dit eskuetatik baina nik indar handiagoa eginez erantzun diot. Ezetz asmatu nork irabazi duen bataila. Bada, ... nik neuk!

Orriak erakutsi dizkiet eta irakurri dituztenean hauek izan dira erantzunak: batek edo bik, egia esan, ez dute ezer erantzun, baina tira, ez dute hitz egin ez onerako ez txarrerako. Beste bi liluratuta geratu dira idazteko gaitasuna ikusita; eta beste bat, bestea... hain liluratu dut, ezen nitaz maitemindu dela uste baitut. Nik ere neska hura atsegin dut baina berari buruz idatzitakoa ez diot oraindik erakutsi, erakutsiko diot.

Mutilak hurbildu direnean eta orriak ikusi dituztenean, ez dira barrezka hasi.



Istorioren bukaera, askok pentsatuko duzue ondo amaituko dela, pelikuletan bezala; ume hori onartzen dute “koadrilan” oso ondo eta lagun handiak egiten dira. Baina ez. Aurrerantzean, ez zidaten barrerik egin, nire aurrean gutxienez ez, bizkarrean ez dakit, baina ez nintzen lagun egin. Ezta gogorik ere! Dena den, dena txarra ez da izan; maitasunean oso ondo nabil eta. Nitaz maitemindu zen neska, orain neskalaguna da; berari buruz idatzitakoak erakutsi nizkionetik. Nik oso ondo ulertzen dut bera eta berak ondo konprenitzen nauela uste dut. Hori esaten dit gutxienez.

Benetakoko laguna

Leire Fdez. Ruiz
Gabriel Aresti BHI, DBH 2. maila

Segidan nire bizitzako aro garrantzitsua eta gogorrena kontatuko dizuet, nire sexualitatea ezagutu nuen aroa, hots, gay nintzela konturatu nintzen aroa. Martin dut izena eta, orain, 29 urte dauzkat eta maite dudana gizonarekin ezkondu nago. Baina nire nerabezaroan gertatu zitzaidana kontatuko dizuet.

Ni herrixka txiki batean bizi nintzen, lagun asko nituen eta gaupasa egiten genuenean beti neska batekin edo birekin bukatzen nuen, baina ez nintzen inoiz maitemintzen.

Nire ikastolan oso ospetsua nintzen, mutil guztiek nire laguna izan nahi zuten eta neska guztiek nire neska laguna.

Egun batean Keparekin lan bat egitea tokatu zitzaidan. Bera klaseko azkarrena, itsusia eta gorrotatuena zen eta nik ez nuen harekin egon nahi, baina egon behar izan nuen.

Lana oso ondo atera zitzaigunez, irakasleak beti batera jartzen gintuen eta, azkenean, lagunak egin ginen.

Ni ikastolako ospetsua nintzenez, ezin nintekeen ikastolako gorrotatuenarekin egon, horregatik, gure adiskidetasuna sekretuan eraman genuen.



Hilabete bat geroago beste mutil bat etorri zen klasera (Hain zen ederra!!) eta gure lagun bihurtu zen.

Bera ezagutu nuenetik ezin nuen beste ezertan pentsatu; Mikel, Mikel eta Mikel.

Ez nuen neskekin egon nahi eta gimnasiako aldageletan ezin nuen nire gorputza kontrolatu. Orduan konturatu nintzen: GAY NINTZEN!!

Ez nekien zer egin, egunak pasatu eta Mikel gehiago maite nuen. Azkenean nire koadrilakoei esatea erabaki nuen:

– Gauza bat esan behar dizuet, niretzat oso gogorra da... –hasi nintzen esaten.

– Gay naiz. –esan nuen bat-batean.

Guztiak barrez hasi ziren:

– Txantxa da, ezta? –galdetzen zidaten.

– Ez –esan nuen serio-serio.



Orduan nire bizitza aldatu egin zen, ikastolako ospetsuena izatetik gorrotatuena izatera pasatu nintzen.

Aldageletan irakasleak ez zidan sartzen uzten eta herri osoak gorrotatzen gintuen; ni eta nire familia.

Baina ez nengoen bakarrik, Kepa nirekin gelditu zen momentu txarretan eta orduan konturatu nintzen nire benetako lagun bakarra bera zela.

Denda, Klub eta leku askotan debekatuta nuen sartzea baina ni ez nintzen goibeltzen, gogorra nintzen.

Horrela institutuko 6 urteak pasatu nituen, umiliatuta baina Keparekin.

18 urte betetzean Keparekin Bilbora joan nintzen. Han jendeari ez zitzaion inporta gay zinen ala ez, pertsona hona bazinen.

Urte bat pasatu eta gero Kepak maite ninduela esan zidan eta nik bera ere maite nuenez ezkondu egin ginen.

Nire nerabazarotik hona lagun asko izan ditut, baina inor ez Kepa bezalakoa. Hori bai dela lagun ona, edo orain hobeto esanda, senargai ona.



EGUNEROKO MAGIKOA

Alazne Cuerva López
Ignacio Ellacuría BHI, DBH 2. maila

Erlantz deitzen naiz eta nire lehen egunerokoarekin pasatu zitzaidana kontatuko dizuet. Dena hasi zen bederatzi urte bete nituenean. Bederatzi urte egin nituen egunean opari asko izan nituen. Batzuk onak: silikonazko gurpildun patinetea eta urpean sar daitekeen erlojua. Beste batzuk, tira: ikastolarako margoak, asko gustatu ez zitzaidan aterki bat eta liburu bat, txakur baten bizitzari buruzkoa edo...

Horrez gainera, amonaren betiko opariak, galtzerdiak eta galtzontziloak. Gainera, beti bezala, gurasoek amonari asko gustatu zitzaizkidala esateko eta musu bat emateko agindu zidaten.

Ah! Ahaztu egin zait, egun hartan egunerokoa ere oparitu zidan Alemaniako osabak. Paketea zabaldu eta liburua ikusi nuenean, buelta eman eta amari esan nion:

- Zer da hau? Zuriz dago!
- Egunerokoa da, zure eguneroko kontuak idazteko.

Alemaniako osabak beti oparitzen zizkidan gauza txundigarri eta erabilgarriak, eta bat-batean, hau oparitu dit? eguneroko “kutre” eta kaskar bat? Orduan esan zidan amak:

– Gustatzen zaizu? Nik esan nion erosteko, zeren eta irakasleak esan dit letra txarra eta zikina duzula, horrela praktikatu eta hobetu egingo duzu.

Nire gelan utzi nuen egunerokoa jostailu zaharrekin batera, eta kalera irten nintzen jolastera, egun ona egiten zuelako. Ez nintzen gehiago egunerokoaz gogoratu ere egin.

Uste dut andereñoaren errua izan zela, amari esan zion letra txarra nuela eta txukuntzen saiatu behar nuela. Horrela, egunerokoan idazten hasi nintzen.

“Gaur urriaren hamazazpia da. Amak kristoren txapa eman dit. Maite dut, baina batzuetan, Mixae dirudi, Shin Chanen ama.”

Egia esan, apurka-apurka gustua hartu nion egunerokoan idazteari. Nire gelan sartu eta idazten hasi nintzen:

“Azaroaren zazpia. Gaur sartu dut nire bizitzako lehenengo gola. Hondartzako lehiaketan izan da.”

Konfiantza hartu nuen egunerokoarekin eta iluntzero idazten hasi nintzen. Iluntze batean, eguneroko orrialdea beteta zegoela ohartu nintzen. Nik ez nuen idatzi! Hori ez zen nire letra, ezta nire aitarena eta amarena ere, eta nire arrebak ez zekien idazten. Egunerokoa izan zen! Txundigarriena zen, idatzita zegoena, egia zela:

“Gosarian katilukada erdia arraskatik behera bota dut. Judoko irakasleari gezurra esan diot, hankan min nuela.”

Hurrengo egunean, harridura eta jakin mina handitzen zihoazen, egunerokoa grinaz zabaltzen hasi nintzen. Ezusteko galanta eman zidan berriro, neuk baino gehiago zekien nire bizitzaz:

“Maidagan gustatzen hasi zaidala uste dut. Gaur irribarre egin dit ikastolan.”

Ez nuen lortu misterioa argitzea. Horregatik, ondoan letra txikiz, idatzi nuen:

“Maidagan ez zait batere gustatzen, tuntuna da eta oso txarra da futbolean jolasten.”

Urte hartako egunerokoa horrela bete nuen, beno, bete genuen. Batzuetan nik idazten nuen eta, besteetan, nor zen ez nekien hark. Eta beste batzuetan biok. Hamar urte bete nituenean egunerokorik oparitu ez zidatenez, zaharra bukatu eta ez nion berriari ekin.

Orain hamasei urte dauzkat eta Maidagan gustatzen zait, hain da polita, jatorra... Gaur ez nekien nire sentimenduak nola azaldu, eta gogoratu naiz txikitako egunerokoaz.

- Aspaldidanik maite zaitut –esan diot Maidagani.
- Bai zera! –erantzun dit berak.
- Ikusiko duzu! Badauzkat frogak!


Egunerokoa aurkitu, zabaldu eta esan diot:

– Orain ikusiko duzu! Laugarren mailatik maite zaitut.

Harro zabaldu nuen egunerokoa otsailaren 4ko orrialdean. Eta orri zuriekin egin nuen topo, neuk idatzi nuena bakarrik zegoen. Maidaganek berari buruzko aipamena aurkitu zuen:

“Maidagan ez zait batere gustatzen, tuntuna da eta oso txarra da futbolean jolasten.”

Gorri-gorri jarri nintzen eta Maidaganek musua eman zidan gero. Ezer ulertu gabe jarraitzen dut. Baina polita izan da.



D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Taberna bat hainbat bizitza

Iñaki Etxarri Ocio
Solokoetxe BHI, DBH 4. maila

1

Atxinatar etorkinaren kamiseta gorri zabal luzeak, udan erabili ohi diren zetazko horietakoak, kontraste handia egiten du egur koloreko “de epoca”-ko kafetegi honetan. Bi hilabete eskas dira hona heldu dela Xangai hiriko zonalde pobreenetatik ihesi. Kezkatuta dago, bi hilabete hauetan ez du bere familiaren berririk izan eta gutun bat idaztea erabaki du geratzen zaion diru apurrarekin tea gosaltzen duen bitartean. Lanean hasteko premia nabari du bere poltsikoa ukitzean, baina nola? Zer egin dezake? Lan fisikoak egiteko txikitxo da, gauza gutxi, baina ikasketarik ere ez dauka, txikitatik gurasoei lurra lantzen lagundu baitie.



Bk 25 urte ditu eta unibertsitatean filosofia karrerako lehenengo mailan dago oraindik. Ez du klasera joateko gogorik, beste askotan bezala, eta tabernan sartu da kafesne bat hartzera. Egunkaria eskatu du, orriak pasatuz ibili da titularrak irakurriz, baina batere kasurik egin gabe. Denbora-pasen sailera heltzean kafe katiluari zurrupada bat eman, arkatx bat eskatu dio barrako zerbitzari argalari eta “lanean” hasi da. Trebezia ikusgarritz hasi da hutsuneak betetzen, baina bukatzeko gutxi falta izan zaionean trabaturik geratu da. “Biztanle kopuru handiena duen Txinako hiria, X_ _G_I”. Ideiarik ere ez dauka, orria pasatu du geroago saiatuko dela erabaki ostean.

Cemakumea kaletik hurbilen dagoen barrako aldean jesarri da. Urduri dago. 43 pasatxo ditu, ezkongabea. Bizitzan gauza ezberdinak egin behar direla eta, ONG batean eman berri du izena. Astebete barru hartuko du Xangai hirira eramango duen hegazkina, eta inguru hartako herrixka nekazari batean pasatuko du urtebete. Urduri dago, bai. Ez daki zer aurkituko duen han.

Dudaletxeko kontseilaria da tabernan aurkitzen den laugarren bezeroa. Traje iluna eta urrezko erlojua eskumuturrean. Taberna polita eta lasaia iruditu zaio eta bertan sartu da goiz erdiko deskantsua egitera. Bere lankideak Udal ondoko hoteleko kafetegira joan diren arren, gizon honek bere kabuz joatea nahiago izan du, izan ere gauzak ditu prestatzeko: oporrak. 50 hamar urte bete berriak ditu eta bere emaztearekin bidaiaria bat egitea pentsatu du. Aurrekoan telebistan dokumental bat ikusi zuenetik gauza bakarra du buruan: Xangai. Ez du turista soil kutre horietakoa izan nahi. Bertako jendea ezagutu nahi du, beraiekin harremanetan jarri, haien kultura eta bizipenak ulertu. Baina ez daki nola egin. Ez du bertan egon den inor ezagutzen, eta ez du bidaiaria agentzia batean galdetu nahi, bertan bidaiaria turistiko soilak eskainiko baitizkiote. Informazioa behar du eta ez daki non lortu.

2

“Kaixo, amatxo. Sentitzen dut lehenago idatzi ez izana, baina ez dut denborarik izan.” Horrela hasi du Ak Txinan utzitako familiari bidaliko dion gutuna. Badaki kezkatuta egongo direla eta lasaitu egin nahi ditu, bere egoera benetan kaskarra den arren. “Ni primeran nago, aldizka lantxoren bat edo beste egiten dut eta horrela jateko eta funtsezko betebeharretarako nahiko diru daukat. Zuek zelan zabilzate?”. Ez daki zer gehiago idatzi. Familia gogoratzean milaka sentimendu datozkio burura, baina idaztea erabakitzen duenean bat ere ez daki azaltzen. Malkoak irtetear dituela ingurura begira jarri da. Tabernan ez dago ia inor. Barran jesarrita trajedun gizon bat ikusi du, enpresariaren bat ziurrenik. Berarengana hurbildu eta lana eskatzea pentsatu du, baina berehala egin du atzera, ez baitaki nola erantzungo dion. Entzuna du arrazakeriari buruzko hainbat kontu eta nahiago du kontuz ibili. Gazte bat dauka pare bat mahai aurrerago, egunkaria interes osoz

irakurtzen ari dena. Intelektual bat izango dela pentsatu du. Egunkarian hain murgildurik irakurtzen duen jendea benetan inteligentea behar duela pentsatu izan du beti. Gazte intelektualaren ondoan emakume nagusiago bat dago liburu bat irakurtzen. Eten gabe mugitzen ditu hankak, kezkatuta egongo balitz bezala. Pazientzia gutxi duen itxura osoa dauka, bera ez den edonori lagundu ezin dion horietakoa. Giroa ez zaio gustatu eta gutuna idazten jarraitzea erabaki du.

C kezkatuta dago. Ez daki ONGarekin Txinara joateko hartu berri duen erabakia egokia den. Inoiz ez da Europatik irten, eta gutxiago urtebeterako. Kezka hauek ezinezko egiten diote eskuartean duen liburua irakurtzea. Liburua itxi egin du. Alboan mutil bat duela ohartu da. Bera baino zertxobait gazteagoa da mutila, ile iluna du eta hankartean liburuz betetako motxila bati eusten dio. Egunkaria denbora-pasen atalean dauka zabalik. Mutil ederra da benetan, amets eginez gero Xangaira berarekin eramango lukeen horietarikoa, baina ametsak amets dira eta ez du harekin hitz egiteko aukerarik ikusten. Asteburuko gaugiroan agian bai, baina goizeko hamar eta erdiak dira eta apaindu gabe dago gainera. Hau pena! Hain da ederra, eta gainera karreraduna, seguru!

B gaztea, unibertsitateko ikaslea, nekatu da jada. Ezinezkotzat eman du gurutzegrama, baina oraindik ez du klasera joateko gogorik. Bere ingurura begira jarri da. Kafetegia erdi hutsik dago. Bera baino bi mahai aurrerago txinatar etorkin nazkagarri bat dago, bertakooi lana kentzeko etorria. Bere ondoko mahaian bera baino zertxobait zaharragoa den andre bat dago kafea hartzen duen bitartean bidaia liburu aspergarri horietako bat irakurtzen. Barran jesarrita berrogeita hamar urte inguruko enpresari diruduna, karpeta eta portafolioak aldean eta ezpainzapi batean notatxoak apuntatzen. Azal iluna du, eguzkitan luze egon denaren antzekoa. Ziurrenik Seicheileak edo halako irlaren batetik heldu berria izango da. Bai, turista dirudun kutre horietakoa. Ze inbidia! Joan dadila pikutara!

Lo zakua, kanpin-gasa... Mm... Dk, traje eta urrezko erlojua daraman gizonak, ez daki zer gehiago eraman dezakeen Xangai ingurura prestatzen ari den bidaian. Egiten duen eguraldia jakingo balu behinik behin... taberna lasaiari begira jarri da pentsakor. Gurutzegramak egiten ari den gazte bat eta burua bere liburutik altxatzen ez duen andre bat dira bere eskumatara dauden bezero bakarrak. Ezkerrean kamiseta gorri zabal bat daraman txinatar bat ikusten du. Ikusitako dokumentalak gogoratuta, txinatar hori nongoa izan daitekeen asmatzen saiatzen da. Ezinezkoa, denak dira berdinak. Duda labur baten ostean ez diola bere oporretako planen eta beldurren berri emango erabakitzen du. Txina oso handia da eta ezinezkoa da bera Xangai ingurukoa izatea. Gainera, baliteke Bilbon edo Londresen jaiotakoa izatea. Ez du merezi.

3

Tabernako giroa lasaia da oso, isila. Aspaldian ez da beste bezerorik sartu. Zerbitzariak lan gutxi dauka eta kezka franko. Irakasleak berarekin hitz egiteko eskatu dio. Bere bost urteko alabak, orain dela bi urte Txinatik ekarriak, arazoak

omen ditu eskolan. Hitzordua daukate arratsalderako. Ezin du burutik kendu. “Tabernan mugimendua egongo balitz, behintzat, une batez ahaztuko nuke”. Telebista pizten du tabernako giroa suspertu nahian.

– Aibala! Ahaztua neukan gaur Frantzia eta Ingalaterraren arteko partida emango dutela telebistan. Singapur jokatzan ari den mundialaren final zortzirenak dira jada!

“Ufff, orain futbola” pentsatu du A txinatarrak. Hainbat arazo ditu futbola ikusten hasteko! Beti futbola! Nahi luke berak, bai, bere kezkek ahaztuta, futbola denbora-pasean ikusteko gauza izatea!

“Hara! Futbola”. Hau da B-k klasera ez joateko behar zuen aitzakia. Inoiz ez da futbolzalea izan, baina bada garaia kirol horren nondik norakoak ulertzeko eta, beraz, ikusten geratuko da. “Azken finean, aizu, hau ere ikastea da!”.

“Futbola! Gizonak beti berdin! Ez dakit noiz ohartuko diren gauza garrantzitsuagoak ere badirela munduan” darabil buruan Ck. Txikitan bera ere futbolzalea izan zen, oraindik ere gustuko du jokatzea, baina inoiz ez du ulertu nola egon daitekeen inor, orduak eta orduak alferrik galduz, milaka kilometrotara jokatzan ari den partida bat ikusten eta bizitzen.

Dk ere gogokoa zuen futbola. Gaztetan aurrelaria izan zen institutuko taldean. Gero erregionalean jokatzan hasi zen. Ona zen, denek esaten zioten profesionala izatera helduko zela. Gogor ahalegindu zen, lan handia egin zuen... auto istripu batean belauna apurtu zuen arte. Egun hartatik ez du pilota bat berriro ukitu. Bere semeari ere asko gustatzen zaio futbola, eta mundialaren kontu horrekin etxean ez dago beste ezer ikusterik. Aspertu da etxean futbola baino ez izateaz telebistan, eta egunean zehar ez du gauza bera ikusi nahi.

4

– GO... uiii! Barruan zegoela pentsatu dut –dio zerbitzariak berbaldia sortzeko ahaleginetan.

– Ezinekoa zen, urrunegi zegoen –erantzun du D trajedunak partidari sartzen ari dela nabaritzen.

Minutu batzuk pasa dira inork ezer esan gabe. Tabernako 4 lagunak eta zerbitzaria telebistari begira daude.

– Jokoz kanpo dago, arbitro! –oihukatu dio Ck telebistari. – Ui, barkatu! –esan du lotsaturik.

Beste lau gizonak irribarre egin dute.

– Barkatu, zer da jokoz kanpo egotea? –Galdetu dio B ikasleak C andreari, eta honek gustura azaldu dio.

A ere animatzen hasi da, eta Txinako ligako gorabeheraren bat kontatu die tabernako ezezagunei: talde garrantzitsuenak, golak nola ospatzen diren etab.

– Adi, Adi! Penaltia Ingalaterraren alde.

– Ezta pentsatu ere! Ez du ukitu ere egin eta!

– Lasai! Orain ikusiko dugu errepikapena.

- Argi dago, ez dio ezer egin!
- Baietz ba, bultzatu egin du!
-

5

Partida bukatu da, eta Ak zera pentsatu du azken komentarioen osteko isilunean: “Ze kuriooa! Bost pertsona gaude hemen barruan, bost pertsona zeharo ezberdinak, elkarren artean ezer ez daukagunok... futbola izan ezik”.

“Ze kuriooa! Bost pertsona gaude hemen barruan, bost pertsona zeharo ezberdinak, elkarren artean ezer ez daukagunok... futbola izan ezik” pasatzen zaio burutik Bri, telebista amaituta begiak gurutzegramako “X_ _G_I”-ra bueltatzen dituen bitartean.

Kobratzeko eskatu dio zerbitzariari eta, hau kutxa erregistratzailean dabilen tartetxoan, Cri burura datorkio kuriooa dela, bost pertsona egotea taberna barruan, bost pertsona zeharo ezberdinak, elkarren artean ezer ez daukatenak... futbola izan ezik.

Dk presa handiz jaso ditu barra gaineko karpetak eta atletik irtetean kuriooa dela darabil buruan, bost pertsona egotea hor barruan, bost pertsona zeharo ezberdinak, elkarren artean ezer ez zeukatenak... futbola izan ezik.

Zerbitzaria kikara batzuk barratik hartu eta garbigailuan sartzen ari da. Bere ondoan egongo bagina entzungo genioke, baxu baina argi: “Ze kuriooa!”

AMAIA

Bihotza eskuan daukadalarik

Carlota Ruiz Sáenz
Solokoetxe BHI, DBH 3. maila

Abuztuak 6

Kaixo arrebatxoa:
Ez dakit inoiz hau irakurriko duzun, edo nik bidaliko dizudan. Asko kostatzen zait hau idaztea, zu bakarrik usteak bihotza samintzen bainau.

Ez dakit non gauden, ez dakit nora goazen. Isiltasuna nagusi da, eta bihotzeko taupadak dira gure komunikazio bakarra. Beldurra adierazten dute aurpegi askok, begiek urruntasunerantz begiratzen dute ausardi faltsuarekin. Eta itsasoa, arrebatxo... Nolakoa den itsasoa. Bere musikak, lasaia eta gozoa, dena ondo joango dela erraten dizu. Nik ez dut sinesten, baina bere besarkadak edonor liluratu dezake.

Ausarta izan nahi dut, baina zure aurpegia ikusten dut nonahi, nire ondoan sentitzen zaitut. Ez ahaztu inoiz nitaz; nik nirekin eramango zaitut beti.

Abenduak 18

Kaixo, arrebatxoa:

Zuri idaztea da pozez betetzen nauen gauza bakarra. Gizona hain da bakartia askotan... Gutunak idazten ditut, gorde, eta bakarrik sentitzen naizenean zutaz gogoratzen naiz hauek irakurriz. Zure urrina daukate askok, hozgiro eta gaztea. Oraindik kontserbatuko duzu? Baietz espero dut. Ni Frantziako hiri batean nago,

Parisen. Gauzak ez doaz oso ondo, baina konpontzen naiz. Hizkuntza oso zaila da ikasteko, baina gure hizkuntza hitz egiten duen jendea ezagutu dut. Lan asko egiten dugu miseria baten truke, eta batzuetan ezeren orde. Ez dut hiria ia ezagutzen. Triste nago; hau al da gure etorkizuna? Zital izatea koloreagatik?

Samingarri egiten zait zu gabe egotea. Barkatuko al didazu noizbait zure ondotik joan izana?

Martxoak 2

Kaixo, arrebatxoa:

Gaur inoiz baino gehiago, zure presentzia behar dut. Zelan daude gauzak herritik? Espero dut beti bezala jarraitzea. Senarrik aurkitu al duzu? Ziur baietz, hain zara ederra... Beti gorritu izan zara hori entzutean, baina badakizu egia dela. Zure ibiltzeko erak herriko gizon guztiak txoratuta zituen. Segur aski oraindik baten batek zurekin amets egiten du.

Gogoratzen duzu herriko jendea? Beti esaten zuten zu eta ni herriko gazterik lirainenak ginela, eta zuk, lotsaturik, alde egiten zenuen korrika. Gogoratzen duzu?

Sarritan zure falta izaten dut. Baina egunen baten herrira bueltatuko naiz, zure bila, diruarekin, eta guztiok etxe handi baten biziko gara: zu zure senarrarekin, eta ni nire emaztearekin. Umeak egongo dira edonon, alai.

Seguru nago.

Uztailak 31

Kaixo, arrebatxoa:

Azkenean! Oso berri garrantzitsua eman behar dizut: atzo bi pertsona etorri ziren etxera, eta gure eskualdeko norbait zegoen galdetu zuten. Berehala baietz erantzun, eta hara abiatuko zirela esan zidaten! Mediku talde batekoak ziren, laguntza eskaintzera joango zirenak, eta ia beraiek zerbait eramatea nahi ote nuen galdetu zidaten. Zorionez! Zuri idatzitako gutun guztiak eman nizkien, eta gure herria non dagoen azaldu nien.

Zure berri izango dut, azkenean!

Ez ahaztu gutunei erantzutea!

Azaroak 30


Gaur etorri dira mediku taldekoak etxera. Gerran zaudetela eta gure herrian ez dela inor bizi aitortu didate. Gutunak bueltatu dizkidate. Hemen nago eserita, bihotza eskuan daukadalarik, nire itxaropen ahulak paper hauetan hiltzen direla ikusiz. Zure oroitzapena izan da urte honetan aurrera jarraitzeko indarra eman didan gauza bakarra. Baina orain, zu ez zaude...

Ez dut sinetsi nahi. Badakit bizirik zaudela. Eta zure bila joango naiz, bizitzeko modu ziztrin hau amaitzen denean; egunen baten.



EGIAREN

AURREAN.



Patricia García Sesma
Ignacio Ellacuría BHI, DBH 4. maila

Bazen behin Nerea izeneko neskatu bat. 12 urte zituen eta oso altua zen. Ile kizkurra eta begi handi eta marroiak zituen. Bere etxeko egoera ez zen oso ona, bere gurasoak ez baitziren ondo konpontzen eta biok beren alaba erabiltzen baitzuten. Gainera, Nerearen aita alabaz aprobetxatzen zen.

Egun batean hirurak eguna pasatzera joan ziren, eta betiko lez gurasoak borrokatzen hasi ziren. Nereak korrika alde egin zuen sesioa ez entzuteagatik eta ibai baten ondoan gelditu zen. Harkaitz baten gainean eseri zen eta negarrez hasi zen. Orduak eman zituen han geldirik eta negarrez, azkenean aitak ikusi eta bere ondoan eseri eta ezpainetan musukatzen hasi zen. Nereak aurpegia baztertu eta aitak zaplazteko bat eman eta berera jarraitu zuen.

Amaitutakoan aitak oso ondo egin zuela esan eta autora abiatu zen. Gauean Nereak arratsaldean gertatutakoaz pentsatzen eta pentsatzen ezin zuen lorik egin. Hurrengo goizean bere lagunik onenari deitu zion arratsaldean elkarrekin gelditzeko. Mariak baietz esan zion, lauretan bere etxe aurrean zegoen parkean. Baina Nerearen aita hiruretan ailegatzen zen lanetik eta oso estresatuta zegoenez, bere alabari heldu zion eta logelara igoarazi zuen. Nereak ezetz esaten zion, baina aitak lau zaplazteko emanda, ileetatik hartuta, gora igo zuen. Logelan bi ordu egon ziren eta bukatutakoan arropaz aldatu eta parkera abiatu zen.

Parkean Maria zegoen oso-osu haserre. Ordu erdi beranduago heldu zelako. Nerea azalpenak ematekotan zebilenean, negarrez hasi zen eta Maria izutu egin zen eta ea zer gertatzen zitzaion galdetu zion.



– Zu zara nire lagunik onena eta ez zaitut galdu nahi, mesedez barkatu.

– Horregatik bada lasai, barkatuta dago.

– Ez da horregatik bakarrik.

– Esan, esan lasai, badakizu ez diodala inori kontatuko.

– Ezin dut, lotsa ematen dit.

– Ez izan horrelakoa, esanda hobeto sentituko zara eta.

– Aita nitaz aprobetxatzen da eta behin baino gehiagotan bortxatu egin nau.

– Nola esan dezakezu hori aitaz?

– Nahi dituzun gauzengatik zin dagizut.

Mariak azkenean sinistu egin zion eta Nereari poliziarengana joan behar zuela esan zion, baina Nereak ezetz esan zion. Hamarrak hamar gutxi ziren eta biak etxera joan behar ziren. Azken boladan Nereak ez zuen asko jaten eta gau hartan ez zuen ezer afaldu, heldu bezain laster bere logelara joan zen. Gau osoa pentsatzen eman zuen. Aste bete zeraman ezer jan gabe eta lo egin gabe. Nerea oso argal zegoen eta amak medikuarengana joatea erabaki zuen.

Medikuak Nereak ezer jaten ez bazuen anorexia izango zuela esan zion amari, eta ea zenbat denbora zegoen ezer jan gabe galdetu zion. Amak azkeneko astean ez zuela ia ezer jan, ezta lo handirik egin ere, esan zion.

Medikuak amari Nerea oso txarto zegoela esan zion eta aholku bat eman zion:

- Nire ustez, Nerea txarrerago ez joateko, onena klinika batean sartzea da.
- Nerea ospitaleratzea? Ez mesedez, ez.
- Tori orri hauek eta pentsatu oso ondo zer egingo duzuen.

Amak paperak hartuta etxera abiatu zen, eta etxera ailegatutakoan aitarekin hizketan hasi zen, baina beti bezala borrokatzen hasi ziren. Bat-batean Nerea etxera ailegatu zen eta korrika joan zen bere logelara. Ama bere atzetik zihoala, atea jo eta barrura sartu zen. Nerea negarrez zegoen. Amak ohean eseri eta Nereari bere ondoan esertzeko esan zion. Nereak bere ondoan eseri eta amari aurrez aurre begiratu zion eta biak negarrez hasi ziren.

Amak, beldurtuta, guztia kontatzeko eskatu zion; hasieran Nerea ez zen ausartzen dena azaltzen, baina azkenean den dena kontatu zion, baina amak ez zion sinisten. Hurrengo goizean, aita bere logelara joanda, ohe ertzean eseri zen. Nerea oso beldurtuta zegoen. Amak aitari esan zion gauean gertatutakoa eta aitari ez zitzaion batere ondo iruditu. Ordu laurden geroago aita bere logelatik irten zen sekulako jipoia eman ondoren. Nerea bere logelako lurzoruan zegoen ahotik zein sudurretik odola zeriola eta eskuak sabelean zituela.

Nerea konturatu zen ezin zuela egoera hartan jarraitu eta etxetik joatea erabaki zuen, motxila batean gauza batzuk sartu eta inork ikusten ez zuenean atea ireki eta alde egin zuen. Hasieran Mariarengana jotzea erabaki zuen, baina Mariak esan zion ezin zela bere etxean geratu, eta beste leku batera joan zen.

Lehenengo gauean bere etxe aurreko parkean lo egin zuen, eta gau guztian zera pentsatzen eman zuen:

“Hamabi urterekin eta etxetik alde eginda. Hau ez da niretzako bizimodua.”

Nereak gau osoa negarrez eman zuen. Hurrengo goizean bere gurasoak Nerea etxean ez zegoela konturatu ziren eta bere bila joan ziren. Nerea goizean goiz joana zen, horregatik gurasoek ez zuten aurkitzen. Poliziari deitu zioten, bere argazki bat eman eta bila hasi ziren, eta hiri guztia miatu ondoren bilatzeari utzi zioten.

Egoera hartan gurasoak alaba hiltzat jotzen zuten, eta orduantxe konturatu zen aita bere alabari egindako kalte guztiaz. Eta zin egin zuen ez bazuen bere alaba aurkitzen, ez zuela bizitzen jarraitu nahi, eta amak horrelakorik ez egiteko esan zion:

- Neuk dut honen erru guztia.
- Ez, zergatik diozu hori?
- Nereak kontatutakoa egia zelako.
- Baina, baina...

Ama alde batetik joan zen bere alabaren bila eta aita etxera joan zen, asteak pasatu ziren eta ez zuten Nerearen berririk. Urtarrilaren 29a zen, bi egunen buruan bere alabaren urtebetetzea zen, eta ez zegoen etxean. Ama sekulako depresioak jota zegoen. Jateari utzi zion, eta asko argaltzen ari zen.

Urtarrilaren 30ean Nerea etxetik pasatu zen, eta amari sekulako ilusioa egin zion. Aitak, ordea, ez zion begietara begiratu ere egin. Nerea honela hasi zen:

- Gauza batzuen bila etorri naiz.
- Baina hauxe duzu etxea.
- Ez, hau ez da nire etxea, hau infernua da.
- Baina nola esan dezakezu hori? ez duzu ezer esateko, aita?
- Ez dut aitarekin hitz egin nahi, beno, dena esanda dago. Agur.
- Ez, alaba, ez zaitetz joan, mesedez...

Nereak falta zitzaizkion gauzak hartu eta bere etxerantz abiatu zen. Ama negarrez geratu zen, baina horrek ez zuen geldiarazi. Nerea egun horietan familia batekin bizi zen, eta bere urtebetetze egunean, opariak eman zizkieten, mp3 bat, arropa... Bat-batean bere nebetako batek, Markosek, familiako txikiena zenak, Nereari galdetu zion ea ez zuen joan behar bere gurasoen etxera. Bere familia berriak ez zekien ezer, beraz Nereak buelta eman eta logelara joan zen. Han zegoenean negarrez hasi zen. Ama bere atzetik korrika joan zen eta negarrez ikustean zera galdetu zion:

- Zer gertatzen zaizu, maitea?
- Ezer ere ez, baina nire gurasoez pentsatzeak tristatu egiten nau.
- Ulertzen zaitut, haiek ikustera joan nahi duzu?
- Ez, mesedez, ez eraman hara berriro, mesedez.
- Baina zure gurasoak dira.
- Baina ez ditut ikusi nahi.
- Kontatuko didazu zergatik ez duzun joan nahi?

Nerea kontatzen hasi zen, amak ezin zuen sinistu entzuten zuena. Gauean bere senarrari esan zion, eta bien artean ados jarri ziren, hurrengo egunean Nereak nahi bazuen poliziarengana joan eta bere gurasoak tratu txarreatatik salatzeko.

Nereak ez zituen bere gurasoak salatu nahi. Ondo pentsatzeko esan zioten, eta Nerearen erantzuna hauxe izan zen:

- Orain nire guraso bakarrak zeuek zarete, besteak ahaztu egin nahi ditut.
- Ulertzen dugu –erantzun zion aitak.
- Eskerrik asko ulertzeagatik.

Honela, Nereak bere gurasoak ahaztu eta bizitza berriari ekin zion benetako familiarekin.

Ume eta soldadu

Israel González Alonso
Ignacio Ellcuría BHI, DBH 3. maila

Egun eguzkitsua zen eta beste guztiak bezala hasi zen niretzat, Sierra Leonako herri txiki hartan. Oso familia pobrea zen nirea eta guztiok lan egin behar genuen bizi ahal izateko. Baina ez zegoen beste erremediorik, bizitza honetan batzuek dena dute ezer egin gabe eta beste batzuk ez dugu ezer, lan eta esfortzu handiak egin arren. Goizean, nekazaritza lanak egiten nituen nire hiru anaiekin. Ez ziren lur emankorrak eta asko kostatzen zen janaria ateratzea bertatik. Bueltatzean, zerbait jaten genuen eta berriro lanera. Jaten genuena gehienetan kantitate gutxitan eta era kaskarrean zegoen; beraz, gaixotasunak oso arruntak ziren gure artean. Puntu horretaraino ez zen ezer aldatu egun horretan. Jan eta gero, ur bila joan nintzen. Hiru kilometro egin nituen bizikleta xume batean beti bezala, ur zikin hori lortzeko. Bigarren joan-etorria egiten nuen bitartean bi lagunekin topo egin nuen eta hirurok batera abiatu ginen. Han aldatu zen hiruron bizitza.

Ibai txikira heltzeko gutxi falta zela, ahotsak eta zaratak nabaritu izan genituen belarren artean. Hasieran ez genekien zer gertatzen zen baina gu hurbildu ahala, gizon armatuak zirela konturatu ginen.

– Zer egingo dugu? Oso azkar dabilta! –esan zuen lagun batek.

– Korrika egingo dugu arrastoa galdu arte –erantzun nion.

Eta horixe egin genuen. Nik ez nekien nortzuk ziren baina beldurtuta nengo.



Normala zen beldurra izatea, armak zeramatzatelako eta beraien aurpegiek ez baitzuten itxura onik. Bospasei inguru ziren. Azkar aldendu ginen handik, baina ez zuen ezertarako balio izan; izan ere, gehiago ziren eta gu inguratzea lortu zuten.

- Oraindik aurrera guk esaten duguna egingo duzue –esan zuen batek.
- Soldaduak eta geure zerbitzariak izango zarete.
- Eta ez duzue inolako posibilitaterik hemendik ateratzeko –horrekin amaitu zuten haien azalpena.

Nire lagun bat negarrez hasi zen. “Gerrako gizonak” deiturikoak ziren eta gure etorkizun hurbilena heriotza eta sufrimendua izango zirela zirudien. Horregatik, ez zen arraroa negarrez hastea.

- Hemen ez dugu jende ahulik nahi. Entzun didazu? –oihukatu zion nagusia zirudienak.

Urte haietan gure herrialdea gerran zegoen eta guri tokatu zitzaigun bertan borrokatzea. Auto militar batean sartu gintuzten eta urrun zegoen mendi batera joan behar izan ginen haiekin. Hara heltzean gu bezalako ume asko ikusi genituen, aurpegi tristeak zituzten ume asko. Gaua zenez, lo egiteko esan ziguten. Baina ez zegoen oherik eta lurrean geratu ginen. Hirurok hitz egin genuen eta gure pentsamenduak atera genituen. Oso goiz altxatzeko agindu ziguten. Gosaltzeko ez zegoen ia ezer. Amaitzean, kanpora atera behar ginen eta esaten zutena egin. Egun guztietan oso zelai handietara joaten ginen. Han armak nola erabili ikasten genuen eta leku zailetatik nola mugitu. Baina hor ez zen guztia amaitzen. Momentu

guztietan haiek babestu ere egiten genituen. Niri kapitaina babestea egokitu zitzaidan eta zerbait gertatuz gero, ni haren erantzulea nintzen. Gau guztietan nire familiaz gogoratzen nintzen eta malkoak ateratzen zitzaizkidan. Ez zegoen irtenbiderik.

Egun batean, ez nintzen garaiz iritsi kapitainak esandako lekura eta izugarritzko jipoa jaso nuen. Horrela, gizon egingo nintzela esan zidan. Zer? Ni umea nintzen, denbora izango nuen gizon heldua izateko.

Jipoa ez ezik, beste gauza bat ere ikusi nuen egun hartan. Bertan neskak ere bazeuden eta esklabo sexual bezala tratatzen zituzten, denetarik egitera behartuta zeuden gizon haiekin. Oraindik gauzak txarrago joateko, gertatzea nahi ez nuena gertatu zen: nire arreba han zegoen, sufritzen eta negarrez zegoen, baina ez zen konturatu ni han nengoela. Egoera hori jasanezina zen eta ez nuen aguantatuko.

Mendi haietan geunden 300 ume inguru, egun askotan bezalaxe, borrokara deituak izan ginen hurrengo egunean. Fusil bat geneukan bakoitzak geure eskuetan. Tiro egin genuen aurkarien kontra. Heriotza nire begietatik gertu pasatu zen. Nire bi lagunak lurrera jausi ziren, hilda zeuden. Bizitza osoan haiekin eta momentu batean biak hilda. Haietako batek hauxe esan zidan:

– Ez zara errendituko, hemendik alde egingo duzula hitz eman behar didazu. Niregatik egin –honekin bere bihotza gelditu egin zen, mundua betiko utziz.

– Jakina –erantzun nion.

Bueltatzean ez ginen 300 ume, 200 edo, baizik. Bakarrik nengoen, eta horrela egon nintzen urte bete gehiagoz, gutxi gorabehera.

Urte horretan, gauzak ez ziren ezer aldatu: ume gehiago hil ziren, besteok jipoitzen gintuzten zerbait ondo ez egiteagatik, gutxi jan eta lo egiten genuen (baina horretara, zoritxarrez, ohituta nengoen), gure bizitza arriskuan zegoen momentu guztietan eta guk maite genuen jendea urrun edota hilda zegoela bagenekien. Gainera, arreba nola bortxatzen zuten ikustera behartzen ninduten. Hiltzea onena izango zela pentsatu nuen. Ez, ezin nuen! Nire lagunari hitza eman nion. Beraz, handik nola ihes egin pentsatzen hasi nintzen.



Askotan, armak trafikatzera eramaten gintuzten eta hori aukera ona zen berriro ez bueltatzeko. Hala ere, bigilantzia oso zorrotza zen eta ezin nuen arreba nirekin eraman. Orduan, aukera hori baztertu egin nuen. Ez zitzaidan ideia onik burura etortzen. Beraz, adore handiz, gau batean nire arrebaren logelara abiatu nintzen eta bertatik atera ginen biok oso azkar. Dena eginda zegoela pentsatu genuen. Gezurra. Bi gizon gure atzetik korrika hasi ziren fusilak eskuetan zituztela. Tiro egin zuten askotan eta batean hankan jo ninduten. Oso ahul nengoen eta ezin nuen ia korrikarik egin. Azken esfortzua eginda gure helburua lortu genuen. Gelditu egin ginen momentu batean.

– Ezin dut jarraitu. Hementxe amaituko da nire bizitza. Alde egin zuk –esan nion.

– Ezta pentsatu ere. Zuk ni salbatu nauzu, ez zaitut utziko –erantzun zidan.

Zauria larria zen eta heriotza hurbilago ikusten nuen. Baina inoiz imajinatutako zorte ona izan nuen. Laguntza humanitarioa ematen zuen elkarteak ikusi genuen eta oihuka hasi zen arreba. Heldu zirenean, ospitale batera eraman gintuzten. Esnatzean, hanka moztu zidatela konturatu nintzen eta han zegoen nire familia behar nuena emateko.

Esperientzia hau ez dut inoiz ahaztuko: nire bi lagunak hilda, ni elbarria naiz eta arrebak HIESa dauka eta haurdun dago. Nire bizitza betirako markatuta geratuko da.

Adoleszentzia galdua

Jenifer Martin Alcorta
Ignacio Ellacuría BHI, DBH 3. maila

Denek pentsatzen dute adoleszentea izatea onena dela, eta nik hori pentsatzen nuen denak behera egin baino lehen.

Nik dena nuen: familia ona, lagunak, eta niretzat garrantzitsuena mutil-laguna. Lucas zuen izena eta dena oso ondo zihoakigun, baina guk pauso bat aurrera egin nahi genuen eta harreman sexualak edukitzea erabaki genuen.

Hiru aste geroago, botaka hasi nintzen eta haurdun nengoela jakin nuen.

Oso beldurtuta nengoen. Ez nekien zer egin (amari kontatu ala mutil-lagunari, biei ala inori ez).


Aste batzuetan zer egin pentsatzen ibili nintzen; oso bakarrik sentitzen nintzen; ez nintzen ezertarako irteten, institutura joateko izan ezik. Han ez nuen inorekin egoteko gogorik eta Lucasengandik aldentzen saiatu nintzen.

Azkenean, amari kontatu nion eta oso txarto hartu zuen. Orduan dena azaldu zidan: ondorioak eta guzti; adibidez, nire bizitza guztiz aldatuko zela.

Zer egin ez nekienez (umea edukitzea ala abortatzea) amak nigmatik erabaki zuen. Umea edukitzea eta jarraian adopzioan ematea erabaki zuen. Niri ez zitzaidan ideia ona iruditzen, baina ezin nion ezer esan, berak ni berriro adoleszentea izatea nahi zuen eta. Baina ez zen konturatu berandu zela horretarako, nire bizitza, jada, aldatu egin zela eta ez nintzela berriro pertsona bera inoiz izango.

Negarrez egin nion aurre egoerari eta umea eduki ostean konturatu nintzen ezin nintzela nire semearengandik urrundu eta hori ikusita, amak hiritik alde egitea erabaki zuen dena atzean utzita.

Baina ez nuen ezer ulertzen: nitaz eta nire semeaz lotsatzen zen ala jendearen zurrumurruei uko egitearren egiten zuen? Erantzuna ez nekien baina joan aurretik Lucasi kontatu nahi nion, bere semea eduki nuen eta seguru nintzen ulertuko zuela. Amak, ordea, ez zuen hori pentsatzen eta ez zidan utzi berari esaten.



Umea berea, amarena, zen itxura egin behar genuen. Beste hiri batera heldu ginenean eta institutu berrira matrikulatzera joan ginenean jendeak hori pentsatzen zuen.

Ordutik aurrera hasi zen nire infernua.

Amak ez zuen denborarik nire umea zaintzeko, ezta dirurik ere laguntzaile bat hartzeko. Nire notak behera egin zuten eta umea beti negarrez zegoenez, ezin nuen ondo lo egin.

Hori guztia aurrera eraman ahal izateko lasaigarriak hartzen hasi nintzen eta egun batean igerian nintzela zorabiatu eta konortea galdu nuen.

Institutuko tutoreak, Anak, nitaz asko kezkatzen zenak, ospitalera eraman ninduen eta amari deitu zion.

Ez dakit nola jakin zuen umea nirea zela eta, han institutuko lagun batzuk zeudenez, eurek ere jakin zuten. Egun batzuk geroago guztiek zekiten.

Hurrengo egunean, institutura joan nintzenean, denek “txerri halakoa” esaten zidaten eta zer egin ez nekenez, Lucas bisitatzea erabaki nuen. Berarekin hitz egin behar nuen, dena kontatu eta bera besarkatu behar nuen, asko maite nuen eta.

Hasieran, dena oso ondo zihoan baina umearena esan nionean, beldurtuta, utzi eta alde egin zuen.

Ettxera bueltatu nintzen jarraian, negarrez. Ama eta Ana nire zain zeuden. Amak ni negarrez ikusita besarkatu egin ninduen eta dena kontatu nion.

Hiru egunen buruan, etxean nengoela, atea jo zuten. Lucas zen eta ea bere semea ezagutu ahal zuen galdetu zidan. Nik baietz esan nion.

Orduan ama agertu zen eta Lucasi etxetik joateko eskatu nion, baina joan aurretik deituko zidala esan zidan.

Egunak pasatu ziren eta Lucasek deitzen ez zidanez berarengana joan nintzen berriro. Ez zegoenez, eskaileretan itxaron nion, ordu bete geroago agertu zen, eta hitz egiten hasi ginen:

– Nik semeaz arduratu nahi dut. Zurekin egon nahi dut! Ikasketak ere utziko nituzke eta lanean hasiko nintzateke. Baina amak ez du nahi ikasketak uztea -esan zuen Lukasek.

Hori esan zidanean oso txarto sentitu nintzen, eta orduan konturatu nintzen nolakoa zen Lucas benetan; berak sentitzen zuena ez zen hainbeste; ez ninduen nik maite nuen beste maite.

Berehala alde egin nuen etxera Lucas bertan behera utzita.

Han konturatu nintzen horrela ezin nuela jarraitu eta institutuan egiten zen hitzaldi batera joan nintzen semearekin. Han guztiei nire istorioa azaldu nien, beraiek jakiteko sexu harremanak izatea oso gauza serioa dela eta edozein momentutan haurdun geratu ahal direla.

– Nik 16 urterekin, eta maite nuen pertsonarekin sexu harremanak eduki nituen, eta nire bizitza aldatu egin zen momentu horretatik aurrera. Baina gauza on bat atera da hortik... nire semea –esan nien.

Hasieran isiltasuna egon zen gela osoan, baina gero txaloka hasi zitzaizkidan nire ausardiagatik.

Gero konturatu nintzen semea ez zegoela ondo gurekin eta adopzioan ematea erabaki genuen. Baina ez edonori, Ana tutoreari baizik (nire ondoan egon zen denbora guztian eta); eta jakina nahi dudanean joan ahal naiz semea ikustera.

Orain 18 urte ditut eta nire semeak 2. Ikasten jarraitu nuen. Eta, jakina, ez naiz inoiz izango lehen nintzena, baina azkenean dena konpondu da eta ni oso pozik nago semea oso sano hazten dela eta familia paregabe batekin dagoela ikustean.

Herriko kondaira bat

Andrea Atutxa Araujo
Ignacio Ellacuría BHI, DBH 3. maila

Kaixo, Igone dut izena, eta orain dela asko gertatu zitzaidan istorioa kontatuko dizuet.

Denbora luzea igaro genuen larunbateko gaupasa prestatzen. Taldeko guztiak, irrika handiz itxaron genuen eguna. Hainbat hilabete egon ginen gau horretaz hitz egiten, zer egingo genuen pentsatzen, eta azkenean mendira joatea erabaki genuen.

Gu bizi ginen herriaren ondoan, menditxo bat zegoen, eta bertan, txabola abandonatu bat. Han igaroko genuen gaua.

Lore izeneko neska bati txangora joateko baimena ukatu zioten eta herrian gelditu behar izan zuen. Ez zegoen eskubiderik! Gainera bera izan zen ia gehiena antolatu zuena. Egia esan, bere familia nahiko arraroa zela esan behar da: amamak Eguzki izena zuen, eta sorgina zela esaten zuten; ama, Nahia izenekoa, nahiko arraroa zen eta herriko jendearekin ez zuen harremanik. Inork ez zekien nor zen Nahiaren aita, etxe horretan neskak bakarrik bizi baitziren.

Arratsaldea aurrera joan ahala mendira joateko gauzak prestatzen hasi ginen. Azkenean, mendian gora abiatu ginen pixkanaka-pixkanaka, basoaren barrura sartu eta zerua iluntzen hasi zen. Paisaia zoragarria zen.

Gaueko hamabietan gutxi gorabehera, beldurrezko istorioak kontatzen hasi ginen. Nire taldeko mutil baten aita ertzaina zen, herriari buruzko kondaira asko

zekizkien eta kontatzen hasi zen. Lehenengo istorio biek ez zuten beldur handirik ematen, baina bat-batean gu geunden txabolari buruzko kondaira edo egiazko istorioa kontatzen hasi zen. Hona hemen ezan zuena:

“Duela berrogeita hamar urte gutxi gorabehera, gu orain gauden txabola honetan bikote gazte bat bizi zen. Beraiek eraiki zuten txabola hau, beraien esku eta izerdiaz. Herriko jendea gazte hauen harremanaren kontra zegoen, beraien familia barne, ez baitzeuden ezkontuta. Baina maitasuna edozer eta edozeinen gainetik zegoen eta bikotearen maitasun istorioak jarraitu egin zuen.

Hamar urte bizi izan ziren hementxe zoriontsu eta pozik, gutxi batzuek kontatzen zutenaren arabera.

Martxoaren batean, goizaldeko ordu batean, atso batek atea jo zuen. Nonbait lo egitea eskatu zuen eta bikoteak ohe bat utzi zion. Ez dago argi zer gertatu zen gau horretan ez baitago testigurik, baina hurrengo egunean, goizero bezala, esnea ekartzen zuen gizona txabolara sartu zenean, honako egoera harrigarria ikusi zuen: ez zegoen bikotearen ezta atsoaren arrastorik ere. Baina esne saltzailea gehien kezkatu zuena haurtxo baten sehaska aurkitzea izan zen. Norena izango ote zen sehaskatxo hori? Neska gaztea ez zegoen haurdun edo hori uste zuen jendeak, edo behintzat, berak...

Elkarri begira geratu ginen denok, martxoaren lehenengo eguna zen eta goizaldeko ordu bata hamar gutxiago zen, hain zuzen ere. Bat-batean, norbaitek atea jo zuen, eta beldurtuta geunden guztiok isildu egin ginen. Pausu hotsak entzun ziren. Atearen beste aldean norbait zegoen. Peru gutariko ausartena altxatu egin zen, atea zabaldu eta... ez zegoen inor, lurrean ekilore bat baino. Izututa, korrika batean herrira joan ginen eta bakoitza bere etxera joan zen.

Urteak aurrera joan ziren eta bakoitzak bere bizitza egin zuen. Nik unibertsitatean ikasten nuen eta nire lagun gehienak herritik kanpo bizi ziren. Urte batzuk pasatu eta gero, afari bat egitea erabaki genuen. Betiko moduan, Lorek afaltzeko ordua eta eguna erabaki zuen, baina azken momentuan ez zen azaldu. Han geundela eta ordu bata puntu puntuan zenean, norbaitek atea jo zuen gogor. Peruk berak zabaldu zuen, eta berriro ere ez zegoen inor; dena den, egun hartan ohartxo bat agertu zitzaigun atean itsatsita, paper zati batean ekilorearen marrazki txiki baten azpian. Oso letra dotorez haxe irakurri genuen:

“Beti zuen oroimenean egongo naiz.

Lore”

Gertakizun hau, gure gogoan gelditu zen betiko, zer gertatu zen? Lore non zen? Erlazionatuta ote zegoen guri gertatutako guztia?...

Inork ez zion inori galderarik egin, eta zergatik jakin gabe, nahiz eta gure artean ados ez jarri, inork ez du gaur arte honetaz hitz egin.



Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntza, 3-4. mailak)

- Lagun berriak	9
- Puppiren abentura	11
- Telefono mugikorra eta Iker.....	14
- Kamal Bilbon	16
- Kroly	19
- Eleneren jostailuak	21

B Kategoria (Lehen Hezkuntza, 5-6. mailak)

- Nire bizitza	25
- Aaaah!!! Labezomorro bat!!!	26
- Kolon oraindik bizi da!	28
- Asto baten bidaia	30
- Gnomo bat gudan	35
- Argen eta Tina	38
- Sorgin Maltzurra	40
- Aitonaren istorioak	42
- Pergaminoa	44

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2. mailak)

- Nire lagun maitea	51
- Idaztearen lotsa	54
- Benetako laguna	56
- Eguneroko Magikoa	59

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3-4. mailak)

- Taberna bat hainbat bizitza	65
- Bihotza eskuan daukadarik	70
- Egiaren aurrean	72
- Ume eta soldadu	76
- Adoleszentzia galdua	80
- Herriko kondaira bat	83